

ttipi-ttapa



Pilotan gozatzen segitu nahi du Naroa Elizalde zubietarrak / 8


Trikitixa jaialdia eta akordeoilarien topaketa apirilean Arantzan / 17



Berako XV. Maratoi Erdia apirilaren 14an egingen da / 38

SINADURAK

 GARAZI ZABALETA URKIOLA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 MAITANE MARITORENA AZKARATE / 4	 JOSEBA URROTZ TELLETXE / 4



ZOKKETA / 48



TTIPI-TTAPA, TTIPI-TTAPA KORRIKA!

Apirilaren 8an ailegatuko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia gure eskualdera.

Euskarak denok behar gaituelako eta euskarak ez duelako mugarik, haur, gazte eta heldu, denek izanen dute Korrikan parte hartzeko aukera. / 25

KORRIKA.EUS

Ikasketak etxean


Gaixotasunagatik luzaroan ikastetxera joan ezin duten ikasleek etxean hartzen dituzte eskolak. / 10

ttipi-ttapa
27.000
irakurle

Liderrak
gure eskualdean
eta baita azterketa egiterakoan
CIESeK **Nafarroa Garaiko**
mendialdean
hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere




ADINAREN ARABERA



%44
EMAKUMEAK

%56
GIZONAK

IKASKETA MAILAREN ARABERA



Datu iturria: CIES, 2018ko metatuak



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

'Mens sana in corpore tullido'

«Kirolik egiten al duzu? Kilo batzuk galtzea pentsatu beharko zenuke...». Gogoan dut medikuaren begirada salatzailea kontsultara beste zerbeitetara joan baina egoera hura nire pisuaren gainean balorazioa egiteko aproposa zela erabaki zuenean. Eskertu behar nuke agian nire osasunaz kezkatuta azaldu zen profesionalaren gomendioa, baina, egia esan, ez dut pisuaren arabera osasun maila neurtzeko ekuazio ustez unibertsal horretan sinesten. Norbaiti entzun nion duela gutxi osasuna sobrealoratua dagoela. Arrazoirik ez zaio falta, larunbat gauetan tabernak hutsik eta igande goizetan gimnasioak beteta ikustea besterik ez dago. Ez dut, ordea, zoriontsuago ikusten jendea kirolariagoa denetik. Eta ez dakit nik osasuna ez ote den derrigortutako edertasunaren disfraz bihurtu azken aldian. 'Osasuntsuarekiko' eta kirolarekiko debozio garaioan, non topatu gure tokia gorputz ustez ez hain sanook? Def Con Dos-en leloak argituko digu bidea: «Mens sana in corpore tullido».

«JENDEA EZ DUT
ZORIONTSUAGO
IKUSTEN KIROLA-
RIAGOA DENETIK»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Korrika ez da leloentzat

Zuek ere esan bai euskarari, Euskaraz eta kitto, Herri bat, hizkuntza bat, Denok maite dugu gure herria euskaraz, Zu eta Ni euskaraz, Jalgi hadi euskaraz, Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira, Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai, Herri bat geroa lantzen, Mundu bat euskarara bildu, Maitatu, ikasi, ari, euskalakari, Euskahaldun Batzuk Klika!

NABARMENTZEKOAK

JOSEBA
LASA
PILOTARIAIONE
GOROSTARZU
POESIA IDAZLEA

Gurpildun aulkian, pilota egokituko II. Master Cup txapelketako finalean izanen da Joseba Lasa lesakarra. Finala apirilaren 7an jokatu da Beasainen eta ETBn ikusgai izanen da.

Leitzan bizi den Ione Gorostarzuk amatasuna gai nagusitzat duen poesia-bilduma argitaratu du: *Ez da erditzea*. 61 poema dira eta Elkar argitaletxearekin ateratu du.

ATZERA BEGIRA



2009-04-02 · TTIPI-TTAPA · 491 zk.

Apeztegiaren agurra

Hamahiru urtez profesionalean ibili ondotik, Unai Apeztegiak (Aurtitz, 1975), 2008ko abenduaren 31n erran zion aio profesionalen munduari. Halabeharrez utzi zuen pilota, Aspe enpresak ez ziolako kontraturik berri. Dena den, azken urteak «erreta» pasatu zituela aitortu zion TTIPI-TTAPAri duela hamar urte egindako elkarriketan, eta alde horretatik, pilota uztea ez omen zen «hain gogorra» izan. «Denei ailegatzen zaie ordua eta onartu beharra dago». Ez omen zuen ezustean harrapatu enpresaren erabakiak: «azken aldian jaialdietako bigarren eta hirugarren partidak jokatzen nituen, eta kontratua ez zidatela berriro pentsatua nuen». Guztia gainetik, ordea, balantzea «positiboa» izan zela erran zuen.

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,

Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urroz, Irune Elizagoien,
Maidor Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Iñaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztegi

Kudeatzailea

Joxemmanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbizuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2019ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	38€
Leitza	26€
Hego Euskal Herria	44€
Ipar Euskal Herria, Europa	83€
Amerika eta Australia	130€



KOLABORAZIOAK

MAITANE MARITORENA AZKARATE

Egotetik egitera klika

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa.... Korrika!!!

Eskutan duzun aldizkariaren izena gehien errepikatuko den astea ailegatu hurren dugu: *hemen gaude... euskararen alde!* Zenbat aldiz oihukatu(ko) ote dugu lema hori, zenbat aldiz erran ote dugu euskararen alde gaudela, baina zerbaiten alde egoteak, zer erran nahi du? Zer eskatzen digu norbanakooi zerbaiten alde egoteak?

Izan ere, arras erraza baita euskararen alde egotea. Egoteak ez baitu deus eskatzen, egonean dagoenak, ez du deus egiten. Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasatzeko tenorea dugu, gaur egun euskararen alde baitago mundu guztia, Amets Arzallusek erran bezala, euskararen heriotza diseinatu eta praktikatu zutenak ere, euskararen alde daude. Erraza baita euskararen alde egotea.

Txillardegik, aurtengo Korrikaren omenduak, Euskal Herria pentsatzeko eta egiteko bertze modu bat ekarri zuen, galtzen ikusten zuen herri baten kontzientzia piztu zion

euskarak. Euskara erakutsi ez zioten familia batean sortu zen. Koxkortu ahala ordea, etxean arrotz sentiarazi zuten hizkuntza horren beharraz jabetzen hasi zen. Horretan gainera, gure eskualdeak izan zuen eraginik: Igantzin pasatu

«EUSKARARE ALDE EGOTEA ERRAZA DA. EGOTEAK EZ BAITU DEUS ESKATZEN»

zituen oporraldietan euskara aditzen zuen, baserri batera sagarrak ebastera joan eta baserritarrak harrapatu zielarik, eskolako lagun sunbildarrak lasaitu omen zuen arras koleratu zen baserritarra. Bi pasadizo hauek, gerora berak aitortu izan zuenez, eragina izan zuten pentsalariarengan.

1929an erdaldun sortu zena, 1947an bere baitatik euskara ikasi eta euskaldun bihurtu zen. Berari zor diogu euskara herrigintzaren erdigunean paratu izana. Herri hau egiteko euskara beharrezkoa zela azpimarratu zuen, euskararik gabe herri honek Euskal Herri izateari utziko baitzion, eta baitio, doike. Euskarak ematen baitio gure herriari nor izatearen izena eta izana. Hizkuntzak egiten du herria, eta hizkuntzak egiten gaitu gu. Euskarak egiten gaitu euskaldun, egiten duguna gara. Lorea Agirrek 2015eko Korrikako akabailan erran bezala: egiten duguna gara. Izatea egitea da. Eta egiteko hautatu egin behar da.

Hautatzeko gutienez bi aukera izan behar ditugu, bakarra duenak ez baitaki zer den hautatu behar izatea, dakien horixe egiten du, eta dakien horixe eginarazten du. Hautatzeko aukera duenak, bat hautatzen duelarik, bertzea bazterrean uzten du. Espainola edo frantsesa hautatzen duenak, euskara ez hautatzea erabaki du. Euskararen alde dago, baina erdaraz egiten du.

Alde egotea erraza baita. Egonean dagoenak ordea, ez du egiten. Izan nahi duenak eginen du, eta gu euskaraz gara.



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Historiotxo bat

Hala gertatu omen zen noizbait nonbait, gure inguruko herri batean. Herri hartako alkatea, bere akatsekin, gizaki aski zentzuduna omen zen. Ez zen txutxumutxuen zalea, jendearen huskeria edo zurikeriei ez zien kasu haundirik egiten, arazo eta gauza garrantzitsuei bertzerik ez.

Egun batean, bere taldeko zinegotzi bat herrian gertatzen ari zen arazoaz jabetu zen. Herritarrek ez zuten uste arazo bat zenik, baina zinegotzi hark hala ikusi zuen, eta alkateari horren berri eman zion.

Herria taldetan banatua zebilela erran zion, batzuk bertzeendako gaizki erraka aritzen zirela, batzuetan aski itsuski gainera, eta itxuraz begi-bistan elkar agurtzen zutela bazirudien ere, nonbait atzetik bertzelako kontuak izaten zirela.

Alkateari kezka sortu zion aferak, eta albinteari agindua eman zion aste batzuez azterketa lana egiteko, ahalik eta informazio gehien biltzeko. Albinteari lana egin zuen eta bildutakoa alkateari eman; ulertzeko lanak izan zituen.

Herriko familia gehienek Deskartentxe eta Platone-nekoei irri egiten zieten, eta ez zituzten kontuan hartzen hainbat gauzeta-rako. Hala ere, Saskiegilenekoek Beroetxekoendako *fuego* aritzen ziren, inongo zakurkeria guziak erraten.

«EZ ZEN NABARI BAT BERTZEARENGATIK GAIZKI ERRAKA ARITZEN ZIRENIK...»

Eta haiek, berriz, Zilipurdinbordakoei maiz samar lapurretak egiten omen zizkieten. Eta holako hamaika kontu, zein baino zein ergelagoa eta itsusiagoa.

Alkatea erabat harritu zen, ez baitzen nabari herrian holakorik gertatzen zenik; herriko bestetan, errate baterako, denak umore ederrean elkarrekin solas egiten zutela baitzirudien. Hala, herritar guziak deitu zituen plazara, agertzen ez zenari isuna ezarriko zion mehatxupean. Baita denak agertu ere. Eta zera erran zien: «Jakín berri dut, eta kezkatua nago, elkarrendako gaizki erraka eta elkarri gaiztakeriak gordeka egiten ari zaretela. Aurpegira solasa eta irrifarra, eta atzetik berriz, labankadak. Ez dut nahi hau nire herriarendako, hainbat gauza itsusi jakín ditut, eta hementxe denen aitzinean, bertzearendako zerbait errateko duenak erran dezala nahi dut, arazo hau konpontzeko». Jendea isilik gelditu zen, aunitz lotsagorritu ziren, ez zuen inork pausorik eman.

«Zer, ez al duzue ba deus errateko? Zuk, Saskiegilenekoak, ez al duzu deus erratekorik Beroetxekoarendako?». Hura isilik... Bertze hainbat jende aipatu zuen, eta denak isilik.

«Begara, orain hemen deus errateko ausardiarik ez baduzue, ez zaitezte gero atzetik ibili, heldugabeak bazinate bezala. Gordeka eta bizkarretik ibili orde, erran aurrez aurre errateko duzuena, eta elkarri lagundu, bertze gisa, ez da gauza onik, eta ez duzue ba nahiko herria hondatzea, ezta?».

Denak isil-isilik, eta alkateak erratekoak erran zituenean, halaxe etxera itzuli ziren. Geroztik, herri hartan ez omen dabil isilpeko kontu zikinik ezta elkarri gordeka gaiztakeriarik egiten ari den inor ere.

11 GALDERA LABUR

LEIRE MITXELENA GAMIO ARANTZAKO GAZTEA

«Euskaraz edozein modutan solas egin daitekeela ematen du»

Aurkeztu zure burua.

Natura maite duen euskaltzale arantzarra naiz.

Zer zaletasun dituzu?

Liburuak irakurtzea, bertsoak aditzea, mendira joatea... gustatzen zait. Inguruan paraje ederrak ditugu eta lasaitasun bila joaten naiz. Malda aunitz ditugunez abiatzea kosta egiten zait baina abiatu ondotik gustura ibiltzen naiz. Mahai-inguruan ere gustura egoten naiz (irriz).

Euskaltzalea zarela aipatu duzu...

Ttikitatik ikasi edo jaso dudana izan da, nire parte da. Altxor ederra dugu.

Kirola eta euskara uztartzen duen

Korrika ekimena ate joka dugu...

Lanak uzten badit, dudarik gabe parte hartuko dut. Ko-

rrika Batzordean nago eta bileretara joaten naiz. Bertzeak bertze, kilometro erosleak bilatzea, komertzio eta ostatuetan Korrika lagunak lortzea, kilometroak markatzea eta materiala saltzea izaten dira gure egitekoak.

Nolakoa da euskararen egoera Arantzan?

Nahi baino kaxkarragoa, eta gero eta okerragoa dela ikusten dut. Orokorrean, Bortzietan maldan beheiti doan afera dela iruditzen zait. Euskararen arnaguneetako bat den arren, kalitatea aunitz jautsi da eta izugarritzko tristora ematen dit horrek.

Kalitatearen gabezia aipatu duzu...

Bai. Bereziki haur eta gazteen erabilera traketsa da. Gaztele-



razko hitzak, esaldien osaera, egiturak, azentua... ibiltzen dituzte. Gazteleraz gaizki solastatzean alarmak pizten dira, euskaraz, aldiz, edozein modutan solasta daitekeela ematen du. Ezin da orokortu baina kontzientzia falta dago... Euskarak hori baino gehiago merezi du! **Zein aholku emanen zenieke herritarrei?**

Euskarak gu bertzerik ez gaituela, euskaldunak alegia, eta... zaindu maite duzun hori!

Zer du Arantzak bertze herriek ez dutena?

Plazan musika dagonean dantza-giro ederra duela erranen nuke.

Zer falta zaio?

Birziklapen gehiago eta apartatzeko tokiak errespetatzea.

Inguruko txororik ederrena?

Herriko kaxkoren batera igoz gero, edozein.

Amets bat?

Euskal Herriko edozein txokotan euskara ederra aditzea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**Udaberriko
kolekzio berria!**

Ohe estalki kolekzio anitza

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

IRAKURLEAK MINTZO

Goizuetako suteak

J. A. APEZETXEA GAZTAOTZA AZIENDA ELKARTEA

Egun batzuk pasatzen utzi ondoren, gogoeta bat edo beste aipatu nahi nituzke Goizuetako azken suteei buruz.

Denok dakigu gure mendi eta landaketetan zenbaterako mina eta kaltea sortu den azkeneko bi suteetan. 125 hektarea inguru erreta, bi borda, bost landaketa kiskaliak, 600 mila eurotik gorako kalteak... Atzerapauso ikaragarria da hogeit urtetik gorako landaketetan erreketak utzi duena. Kinttalko barrutian, Goizueta bertako haritz ezkurra bildu, landarea atera eta bertan aldatua zen eta zenbait lekutan zuhaitz koxkorak eginak ziren, baita aspalditik azienda larriak azpian bazkatzen hasiak ere. Easporro barrutian, berriz, gure herrian atzerako hondeamakinarekin (*retroexcavadora*) zulatutako landaketa zegoen; beste batean, ordea, otez betetako barrutia baina tarteka zuhaitz batzuk ikusten ziren.

Akaso zeozer ikas dezakegu ekintza horien ondoren. Esate baterako, Udalak egiten dituen udako garbiketetan, kopuru bat erabil daiteke barrutietan dauden bizkar batzuk desbrozatzeko, suteak segidari izan ez dezan. Goizuetan pista asko ditugu, baina pixkanaka bide garrantzitsuenak garbitu litezke suteak kontrolatzeko eta horien inguruan itzaltzeko. Badakit gastu ikaragarria dela herriarentzat, baina gertatutakoarekin lehentasunak erabaki litezke.

Beste aldetik, itzaltzeko lanak aipatu nahi ditut. Ikaragarriak izan ziren bertan ibilitako baliabideak: helikopteroak, hegazkina, mendiko bi *timberjack*-ak, bulldozerra, kamioiak... Eta nola ez, laguntzera bildutako jendea. Nahiz eta dena erabili, uste baino gehio erre zen, batez ere bigarrego sutean. Haize izugarria egin zuen eta arratsaldeko zaparrada horrek eman zion suteari bukaera.

Beren lana utzita, han azaldu ziren bi baso enpresetako langileak beraien traktoreekin, baita Nafarroako Gobernuko basozainak, Goizuetako Udala, Motzaneko bokatak eta herriko jende asko ere, eta nola ez suhiltzaileak.

Aipatzekoa da suhiltzaile profesional gutxi batzuen jarrera. Hainbeste kamioi etorri eta oso gutxi igo ziren mendira sutea itzaltzera. Egun guziaz errepidetik mugitu gabe pasa zuten, nahiz eta mendiko ibilgailuak izan. Lotsagarria izan zen gutxi horien jarrera, bitartean batzuk beren lana utzi eta mendiko traktoreekin pistak irekitzen aritu zirelako, beste batzuk kontrastua ematen, besteak itzaltzen... Eta horiek bat-batean ondotik alde eginak. «*Vamos a reagruparnos, no tenemos efectivos*» entzuten zen beraien walkie-talkietatik. Hala ere, ezin da baztertu suhiltzaileen lana gutxi horiengatik; aire eta lurereko baliabideen koordinazioa izugarria izan baitzen.

Azkenik, inor ez ahazteko ez ditut izenak emanen, baina eskerrak eman nahi nizkieke bukaeran etorritako euri zaparradari, lehen aipatutako basoko langileei, basozainei, bokata egileari, Udalar, bertara laguntzera azaldutako herritarrei eta suhiltzaile profesionalai, baita sua eman zuenari ere; bere alde txarrenak erakutsi baitugu herritarren alde onena. Goizuetako suhiltzale boluntarioak ere ezin dira goraipatu gabe utzi. Batzuk goizaldean lanean hasi eta ilunabarren oraindik sutean ibili ziren; besteak, berriz, beren lana bukatu eta sutea itzaltzera joan ziren. Beraien bi kamioiak hartu eta gora eta behera ura eramanez ibili ziren, gelditu gabe, ilundu eta oraindik mangerak zabaltzen. Benetan lan ikaragarria dohainik egiteko. Mila esker.

Bukatzeko, esan, guk erabiltzen genuen borda bat erre zela, baina bestea salbatzea lortu zenutela. Beraz, Gaztaotza Azienda Elkartearen ize-nean, eskerrik asko denei zuen lan ordainezinagatik.

Lehendakari txit agurgarria

AMAIA ZUBIETA GARCIAINDIA

Nire laneko ibilbidea amaitzean, sensazio gazi-goxoak gelditu zaizkit.

Goxoak izan ziren partekatu nituen proiektuak, esperientziak eta ilusioak udal ikastolako lankideekin, euskarazko irakaskuntza eremu publikora zabal-tzen. Goxoa hezkidetzaz ezartzeko bidean topatu ditudan emakumeak ezagutzea eta elkarrekin aritzea. Gogorrak, baina beharrezkoak izan dira eman ditudan urteak STEILAS sindikatuko bozeramaile lanetan.

Aurreko gobernuak 2009tik aurrera, Hezkuntza publikoan murrizketa basatiak ezarri zituzten eta langileen ordezkariak erabat baztertu zuten erabakiak hartzerakoan. Hori dela eta, itxaropenez beterik txalotu genuen Aldaketaren Gobernuak. Zoritzarrez, irakaskuntza publikoa ez da egon gobernu horren lehentasunen artean, ezta sindikatuekin batera lan egitea ere proiektuak eta araudiak elkarrekin adosteko.

Batetik, nahiz eta abuztuan sindikatuekin sinatutako akordioa betetzeko, 2019ko aurrekontuetan finantziarioa pixka bat igo, BPGren %3,2tik %3,4ra, oso urrun gaude UNESCOk aholkatzen duen %6tik. Gobernuari eta Parlamentuari eskatu diogun bezala, irakaskuntza publikorako finantziarioa legea izango litzateke bidea behar diren baliabideak bermatzeko, gorabehera ekonomikoen arabera egon gabe.

Bestetik, martxan jarri diren proiektuetik, gehi biderkatu den burokrasiak, gainzama ekarri die irakasleei. Horrez gain, langileak kontratatuzko araudiak inposatu dira, ordezkariak sindikalaren iritziaurren aurka, eta gaur egun irakaskuntza publikoan lanean aritzeko estatuan dagoen araudi injustuena dugu Nafarroan.

Hala ere, baikorra izan nahi dut. Espero eta desio dut hurrengo legealdian berriro ere zu lehendakaria izatea, beti ere hezkuntza publikoari lehenta-

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

sunak emateko eta behar den bezala finantzatzeko prest bazaude eta oraingo gobernu programan hezkuntza arloan bete gabe gelditu diren puntuak (0-3 doakoa, unibertsitatea eta kudeaketa komuna; hizkuntza tratatzea; bateraturako bidea ezartzea; aniztasun tratatzearako baliabideak...) eta beste premiazko gaiak adostasunez gauzatzeko.

Jubilatu arren, nire eskola publikoaren aldeko konpromisoak indarrean darrai eta sinetsi nahi eta espero dut liderra izanen zinatekeen gobernuak horren alde lan egingo duela. Elkarlanerako gertu.

Akats zuzenketa

TTIPI-TTAPA

Aitzineko TTIPI-TTAPAN, 730. zenbakian, eskualdean biztanleriak izan duen bilakaeraren inguruko erreportajea argitaratu genuen eta horren barne, udalerriz udalerrira datuak. 2008 eta 2018 urteetako biztanleria kopuruak alderatu genituen baina tartean bada akats bat: aldizkarian agertu ziren Sara eta Senperen portzentajeak 2000 eta 2018 urteen arteko datuen alderaketan dira. 2008 eta 2018ko biztanleria datuak kontuan hartuz, Saran %17,9 igo da biztanleria eta Senperen %36,6. 2000 eta 2018ko datuak alderatuz, berriz, Saran 21,61 igo da eta Senperen %55,82. Barkatu eragozpenak.

BOTA BERTSOA

FERMINTXO LARRALDE CORDOBA

ELIZONDOKO BERTSOLARIA

Errugbi gaupasara animatu!


Doinua: Irun badaukazu zer bait



*Hamaseigarrena aurtan
nola pasa den denbora
Bi mila eta hiruan
egin zen lehenengo frogara
urtez urte antolatuz
bestak egin zuen gora
errugbia eta saltsa
uztartuz zeinen gustora
Apirilaren seian da
ekarri zuen gogora
utzi lotsak eta hurbildu
Larraitzarreko xokora
afaltzera etorrita
pasako duzue bonba
zuendako ezta aunitz
baina guretzat asko da (bis).*

*Batzango errugbi taldeak
gonbitea da luzatu
perezak etxean utziz
etorri eta probatu
inoiz etorri bazara
berriz ere animatu
zure ekarpenarekin
errugbia sustengatu
erromeria doinuak
kantatu eta dantzatu
aukera eduki ezker
ligatzeko aprobetxatu
autobusa izanen da
nahi baduzue bueltatu
eskerrak taldean partez
eta gaupasaz gozatu (bis).*

GOITI ETA BEHEITI



Kalte haundiak eragin ditu suak



Mendia garbitzea omen da helburua... Kontua da, ordea, nahita eta baimenik gabe piztutako suteek kalte haundiak eragin dituztela aurtan hainbat menditan.

HEMEROTEKA



«Muga madarikatu hori kendu eta lanean elkarrekin aritzea da helburua eta teknikoki baseritarren artean sare baten sortzea. Lehen anitz bazen laborarien artean. Ehekolektiboak hori defendatzen du. Ehekobiziki proiektu ederra da; oinarri onak eta sanoak ditu, eta merezi du, zinez, aitzinera joatea eta ezagutua izatea».

MIRENTXU DOIHENART

LANDARE EKOIZLEA I

SENPERE I HITZA. 2019.03.15



«Pasioz bizi dugu gure lana, eta ia pasiotik bizi gara. Ekoizten dugun horretatik jateak salbatzen gaitu, bestela ezinezkoa litzateke horrela bizitzea. Milioiak balio dituen pabilioi bat egiteko laguntzak eraz ematen ditu administrazioak, baina zaila da desbrozagaileu baterako laguntza lortzea».

MAITE SANCHEZ

GOIZUETAKO ABELTZAINA

ARGIA. 2019.03.24



«Ahal dudan bitartean pilotan jokatzeko segitu nahi nuke»

NAROA ELIZALDE ETXEKOLONEA ZUBIETAKO PILOTARIA

Ttikitatik izan duen pilotarako zaletasuna urrutirago emateko aukera izan du zubietarrak Master Cup txapelketetan. Etorkizunera begira pilotan gozatzen jarraitzea gustatuko litzaioke

G. PIKABEA ZUBIETA

Ttikitako arantza kendu du Naroa Elizalde Etxekoloneak (Zubieta, 1997). Pilotan jokatzeko zen bere ametsa, lagunartean eta lehengusuekin egiten zituen partidetatik urrats bat gehiago ematea. Eta lortu du Emakumezkoen Master Cup pilota txapelketari esker. 6-7 urte zituenetik esku-pilota izan du kirol maitea, bai jokatzeko baita ikusteko ere. Hala pasatu zituen haurtzaroko momentu asko, Zubietako plazan eta eskolako patioan jokatzeko eta etxean, amatxirenean edo Herriko Ostatuan partidak ikusten. Ordutik afizioari eutsi dio. Gaur egun, frontoietan dabil. Dagoeneko, promozio mailan, binakako Master Cup txapelketan hiru aldiz parte hartu du eta banakakoan, lau eta erdian, bi aldiz. Iaz, lau eta erdian, finalaren atarian gelditu zen, eta aurren, binakakoan gutxigatik gelditu da finalerdietatik kanpo.

Nondik datorkizu pilotarako zaletasuna?

Horixe galdetu izan diot beti nire buruari. Amaren aldeko osabek pilotan aritzea gustuko omen zuten eta lehengusua ere pilotaria da, Jaunarena leitzarra. Hortaz aparte, gogoan dut Irundik Zubietara bizitzera etorri berritan, 2005ean, Irujo eta Olaizola II.ak finala jokatzeko zutela eta ama nahiko saltsera denez, bera Aimarren alde zegoela eta in-

gurukoak zirikatzen ibili zela. Irujo zen faborittoa, baina Olaizolak partidari buelta eman eta 22-18 irabazi zuen. Hortik

aurrera pilota partidak ikusten hasi nintzen. Lagunekin plazan jolasean ari nintzela kanporatua izaten nintzenean, os-



Elizalde 2018an Markinan, binakako txapelketako final-laurdenetan. UTZITAKOA

«ORAINDIK EZ DUT ENTRENAMENDUAK EGITEKO ERRUTINARIK»

«PARTIDETAN GEHIAGO ARRISKATU NAHI NUKE»

tatura joaten nintzen partidak ikustera. Pilotan jokatu ere orain baino gehiago egiten nuen, lehengusuekin edo edozein herritarrekin aritzen nintzen, zaharragoak ala gazteagoak izan. Eskolan, errekreotatik ere aritzen nintzen; baita DBH eta Batxilergoan ere, ahal nuenean.

Aurtengo binakako Master Cup txapelketan nola ikusi duzu zure burua?

Aurreko txapelketekin konparatuz, diferentea izan da. Otsailaren 3an bi partidak jokatu genituen eta martxoaren 3an beste bi. Beste urteetan, aste-bururo izaten genituen partidak, eta aurren hilabete batez geldirik egon behar izan dugu eta ez dut txapelketa batean murgilduta nongoenik sentitu.

Nolako maila ikusi duzu promozio mailan?

Promozio mailan askok ematen dugu izena. Hasiberriak direnek, pilotan dabilzan gaztetxoek eta ttikitari pilotan jarraitzeko aukerarik izan ez eta aukera hori aprobetxatu nahi izan duginok. Hori horrela, batetik bestera maila aldatzen dela esan nuke. Hasierako kanporaketetan maila ez da oso altua izaten, baina kanporaketek aurrera egin ahala maila handixeagoa nabaritzen da.

Nola eman zenuen txapelketan parte hartzeko urratsa?

Lehenbiziko aldiz binakako txapelketa zegoela jakin nuenean, 18-19 urte izanen nituen. Parte hartzeko gogo sentitu nuen, baina aldi berean kezka ere bai, aspaldi ari gabea nintzelako. 12-13 urterekin halako txapelketaren bat zegoela jakin izan banu, poz ederra hartu izanen nuen. Etxean txapelketarena aipatu nuenean, ahizpak, nire harridurarako, elkarrekin izena ematen genuela esan zidan, animatuko zela. Ez zitzaion askorik gustatzen pilota eta ez zen behin ere aritua, baina niri mesede egiteagatik seguerenik, bi aldiz pentsatu gabe

argi izan zuen izena eman nahi zuela. Ez banu izenik eman pena sentitu izanen nukeen eta berari esker parte hartzea erabaki genuen. Lehenbiziko kanporaketan kanporatuak izan ginen, baina gutxienez bi partidetatik bat irabazi genuen. Ez ginen gaia oso serio hartuta joan, baina ongi pasatu genuen eta orduko oroitzapen polita dut.

Lehenbizikoz txapelketan jokatu zenuenetik zure jokoak nolako bilakaera izan du?

Lehenbiziko aldiz txapelketan izena eman nuenean, hiruzpalau urte batere pilotan ari gabe izanen nituen, eta partidetara ia pilotan ibili gabe joaten nintzen. Orain, berriz, Lehen Hezkuntzako Gradua egiten ari naiz Gasteizen, eta han nagoela aprobetxatuz, astean behin asteazkenero pilotan aritzeko elkartzen gara. Deus ez aritzetik pixka bat aritzera eboluzio tiki bat izan dela esanen nuke, nahiz eta ez naizen askorik aritzen. Ez dut entrenatzeko errutinarik hartua, ezta lasterka ibiltzeko ohiturarik ere... Egiten dudana nire kabuz egiten dut; mendira joaten banaiz, gustatzen zaidalako egiten dut. Hala ere, gehiago egitea gustatuko litzaidake. Nafarroako pilotari batzuk astean behin entrenatzeko gelditzen dira, eta udan segitzeko asmoa baldin badute, beraingana joatea gustatuko litzaidake.

Lehen Mailatik urruti ikusten duzu zure burua?

Bai, oraindik bai. Lehen Mailan ari direnek frontoiko lana beraien egunerokoan sartua dute. Nik, oraingoz, ez dut halakorik egiten. Lehen Mailan aritzeko gutxienez astean bitan pilotan ari beharko nuke.

Nola ikusten dituzu emakumezkoak pilota munduan?

Emakumezkoen Master Cup txapelketak badu zer hobetua, baina horri esker ikusi ahal izan dugu zenbat emakumezkoari gustatzen zaigun pilotan aritzea. Hedabideetan ere ez gara askorik agertzen eta jen-



Joan den abenduan Amezketan, lau eta erdiko finalerdian. Finala jokoa izan zuen partida hartan. UTZITAKO ARGAZKIA

Motzean

Zure burua hitz gutxitan.

Jenioa barrenean daraman pertsona lasaia.

Pilotari bat? Olaizola II.a. Eta Bengoetxearen partidetan gozatu egiten dut.

Takoak? Normalean kapa fin bat; baina azken partidaren esparatrapua bakarrik erabili nuen.

Frontoi bat? Labrit (Iruñea).

Noren aurka jokatu zenuke gustura? Etxanizen aurka.

Hondartza ala mendia? Mendia.

Nora bidaiatu zenuke? Gustura nago nagoen tokian.

Bertsolari bat? Nerea Ibarzabal.

de asko ez da konturatu emakumezko pilotarien txapelketak ere izaten direla. Baina tira, poliki-poliki egoera hobetzen ari da. Udako festetan, adibidez, gero eta herri gehiago dira emakumezko pilotarien partidak eskatzen dituztenak. Lana badagoen arren, bide onetik doala ikusten dut.

Gizonezkoen parekoa izanen da inoiz emakumezkoen pilota?

Uf! Arront zaila ikusten dut. Gizonezko asko pilotatik bizi dira eta nahiz eta emakumezkoen egoera hobetzeko itxaropena dudan, ez dakit gizonezkoen parera inoiz ailegatu garen. Emakumezkoontzat pilota lanbide bakarra izateko aukera oraingoz urruti ikusten dut.

Pilotan zure zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Pilota partida asko ikusi ditudalako edo, aurrean nagoenean ez zait pilotari eman eta eman aritzea gustatzen. Gu ere gantxoak edo dejadak egiteko gai garela erakutsi nahi izaten dut, baina horretarako ausardia behar izaten da. Halakoak entrenamenduetan errazago egiten dira, baina partidetan gehiago kostatzen da. Hortaz, errematatzea gustatzen bazait ere, nire jokotik zerbait nabarmendu beharko banu, defentsa aipatuko nuke. Hasiara batean, aurrelari gisa hasi nintzen eta orain atzera pasatu naiz eta txapelketan hobe ikusi dut nire burua atzean. Seguruago sentitu naiz,

atzetik joko guztia ikusten delako.

Eta hobetzekotan zer hobetu beharko zenuke?

Entrenamenduetan bezala, partidetan ere arriskatzeko beldur hori kendu nahiko nuke. Aurrean sartzeko konfiantza hori falta dut. Horrez gain, ezkerrekin modu naturalean emateko eta gerria sartzeko posturak hobetu behar ditut. Pentsatzen dudan guztia ongi aterako balitzait partida ederrak aterako litzaidakide! [irriz].

Zein helburu dituzu pilota munduan?

Egia esan ez dut helburu zehatz zehatzik. Tikitako arantza hori kentzeko apuntatu nintzen Master Cup txapelketara eta arantza hori kendu dudanez, pozik nago. Hala ere, ahal dudun bitartean pilotan jokatzen eta txapelketetan apuntatzen jarraitzeko asmoa dut, eta helburua txapelketa horietan kantxan gozatzea eta gustura aritzea da. Gustuko dudun horretan gozatzen ahal badut, eta besteek ere disfrutatzen auzera baldin badute, helburua beteta izanen dut. Eta, beno, behin eskatzen hasita, garaipen bat iritsiz gero, ongietorria izanen da [irriz].

Etxea ikasgela bihurtzen denean

Gaixotasunagatik luzaroan ikastetxera joan ezin duten ikasleek etxean ikasketekin segitzeko aukera izaten dute. Horixe da Leire Pagadizabal lesakar gaztearen kasua. Akademikoki ez ezik, psikologikoki ere ona dela diote horretan ari direnek

G. PIKABEA LESAKA

Ibiltzera joatea, sukaldatzea, musika aditzea eta pelikulak ikustea atsegin du Leire Pagadizabal Igartzabal lesakarrak. Baita bidaiatzea ere. 17 urterekin munduko bazter franko ezagututakoa da. Hain zuzen, bidaia horietako batean zela diagnostikatu zioten tumorea. Joan den urtean izan zen, Los Angelesera (AEB) ingelesa ikastera joan zenean. Lehenagotik ere bazuen oinazea, «bizkarreko minarekin hasi nintzen eta ziatika zela erraten zidaten», adierazi digu. Mina jasanezina bihurtu zen AEBetan zela, eta «tumor batharrapatu zidaten». Etxera itzulita, Donostiako ospitalean, «bizkarrezurrean Ewing sarkoma nuela erran zidaten». Operatu ondotik jakin zuen tumorea gaiztoa zela eta minbizia zuela, eta kimioterapia eta erradioterapia saioekin hasi behar izan zuen.

Urte erdia baino gehiago pasatu da geroztik, eta tratamenduak tratamendu, «hagitz ongi» dagoela aitortu digu, «ez dut ondorio haundirik izan». Are gehiago, irria ezpainetan ilusioz ikusi digu: «tratamendua maiatzean akabatuko dut eta uda hor dagoenez, arrunt kontent nago».


Urritik eskolak etxean

«Minbiziaren notizia jasotzea baino gogorragoa egin zitzaidan eskolara ezin nuela joan onartzea». Halaxe aitortu digu. «Lagun guztiak eskolara joanen zirela ikusten nuen, eta nik ez nekien nolakoa izanen zen nire urtea». Baina hasierako kezka haiek ederki alendu

zaizkio. Joan den urriaz geroztik, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-arreta etxean jasotzeko zerbitzuari eta Berako Toki Ona institutuak egindako bitartekaritza-lanari esker, etxean jasotzen ditu eskolak eta «hagitz gustura» dabil.

Bigarren batxilergoa

Bigarren batxilergoan ari da Pagadizabal eta tratamendua jasotzen ari bada ere, ikasketak ez ditu bazterrean utzi. Toki Ona institututik joaten zaizkion bi irakaslerekin ikasten segitzen du etxean. Jaione Inda donez-



Leire Pagadizabal etxeko lanak egiten, etxean. UTZITAKOA

«IRAKASLE BAT ONDOAN IZATEA GOZAMENA DA»

LEIRE PAGADIZABAL, IKASLEA

«IKASLEAREKIN HARREMAN BEREZIA SORTZEN DA»

JAIONE INDA, IRAKASLEA

tebarra da irakasle horietako bat. Gaixo dagoen ikasle bati etxean klaseak ematen ari den «lehenbiziko aldia» du eta «esperientzia ona» izaten ari dela aitortu digu: «erakustera joaten naiz, baina aldi berean, ikasten ari naiz». Gehiago ere kontatu digu: «Leirerekin erraza izaten ari da, bidea erraztu egiten du».

Toki Ona institutuko orientatzaileak egin zion proposamena: «irailean, ikasturtea hasi genuenean, lanaldi osoan ari ez nintzenez, Lesakan arreta behar zuen neska bati eskolak emanen ote nizkion galdetu zidan eta bi aldiz pentsatu gabe, baietz erran nion». Ingeleseko irakaslea da bera eta ingelesaz eta Pagadizabalek aukeratua duen hautazko ingelesaz gain, euskara eta gaztelania irakaskaiak ematen dizkio. Bertze irakasleak, berriz, matematika, filosofia, enpresa eta administrazioa erakusten dizkio. Funtzionamenduari dagokionez, «irakasgai bakoitzeko irakaslearekin harremanetan jartzen» direla kontatu digu Indak: «irakasleek materiala ematen digute eta guk prestatu eta ikasleari ematen diogu. Irakasleak etxera joaten ez badira ere, gainean daude eta elkarlan bat da».

Tratamenduaren arabera

Astean irakasle bakoitzarekin launa ordu pasatzen ditu lesakar gazteak eta jaso behar dituen kimioterapia eta erradioterapia saioen eta egin behar dituen analisisien arabera antolatzen dituzte eskolak.

Bigarren batxilergoa «urte zaila» dela azpimarratu du Indak. Bere irudiko, «maila baxuagoetan errazagoa da eskolako martxarekin segitzea» baina bigarren batxilergoan «zailagoa da, dena agudoago doalako. Azken urtea da, maiatzerako akitzen dute eta ez dute arnasteko astirik». Hori ikusita, Pagadizabalek bi urtez atera nahi du batxilergoko bigarren urtea: «aurten ahal ditudan irakasgai guztiak gai-

netik kendu nahi ditut, heldu den urtean lasaia go hartzeko», dio lesakarrak. Ikastea «normalean sobera gustuko ez» duela onartu digun arren, gogotsu ari da eta ospitalean egotea tokatzen zaionetan ere serio hartzen du: «etxeko lanen bat baldin badut beti ospitalera eramaten dut, denbora luzez egoten naizelako».

Indak, bere aldetik, «ikastetxearen aldetik ahalik eta aukera gehien ematea garrantzitsua» ikusten du. Horregatik antolatu dituzte bertze era batera Pagadizabalen ebaluaketak: «ikastetxean daudenek azaroan akitu zuten lehenbiziko ebaluaketa eta Leirek abenduan, bigarrena berez otsailean akitu zen eta Leirek apirilean egingen du, eta hirugarrena bertzeek maiatzean akituko dute eta Leirek ekainean».

Eskolak etxean hartzea «sistema eraginkorra» dela uste du Indak eta «ez akademikoki bakarrik». Bere hitzetan, «psikologikoki ere» halaxe da: «bertze gauzetan okupatuak mantentzen ditu eta kanpotik norbait etortzea ona da beraiendako». Horrez gain, etxeko zerbitzuarekin, eskolak ikastetxean baino «gehiago

aprobetxatzen» direla dio irakasleak baina «tratamendua dela eta, gaia gehiago luzatzen ahal dela» ohartarazi du. «Ezin da epe luzearako planik egin».

Lotura berezia

Etxean eskolak emanez ikaslearekin sortzen den harremana ere azpimarratzekoa da doneztebarrentzat: «ez da eskolan gainerako ikasleekin sortzen den harremana bezalakoa; zerbait bereziagoa sortzen da. Ikastetxean daudenean gehiago egoten bagara ere, etxean aurrez aurre gaude eta ez dugu eskolako kontuez bakarrik solas egiten». Eta horixe da, hain zuzen, Indaretzat, bere lanaren «alderik politena: ikaslearekin sortzen den konplizitatea eta konfiantza». Familiarekin ere «harreman ona» duela kontatu digu: «aunitz egoten gara eta harreman zuzena dugu; edozein gauza dela ere nire zenbakia eskura dute». Bide beretik jo du Pagadizabalek, «hagitz gustura» dagoela aitortu baitigu, «irakasleekin konexio ona» duela erranez. Are gehiago, azterketetan irakaslea ondoan egoteak urduritasun puntu bat sortzen diola onartu badu ere, «ikas-terakoan irakasle bat lagun-



Jaione Indak lehenbiziko urtea du gaixo bati etxean eskolak ematen. TTPI-TTAPA

tzeko ondoan izatea gozamen da». Ez daki oraindik gero- ra zer ikasiko duen, baina «zailtasunak dituztenekin hagitz ongi» moldatzen dela eta, akaso bide hori aukeratu- ko duela kontatu digu.

Eta udan Irlandara!

Maiatzera arte tratamendua- rekin segituko duenez, ikas- turte osoan etxean jasoko du irakasleen bisita. Udan, ordea, ez du etxean gelditzeko asmo-

rik; minbizia duten haur eta gazteentzat eta haien seni- deentzat Irlandan, Wicklow mendien magalean dagoen gazteluan, antolatzen duten Barretstown kanpaldian parte hartzekotan da: «uztailaren 19tik 27ra Europako hainbat bazterretako haur eta gazteak Irlandan elkartzeko gara». De- naren gainera bizipoza eta ilusioa. Horixe da lesakarra- rangen sumatzen dena eta horixe da transmititzen duena.

70.000 euro etxeko zerbitzurako

Medikuak hala aginduta, etxean luzaroan egon behar duten ikasleek hezkuntza- arreta etxean jasotzeko diru- laguntza ematen du Nafarroa- ko Gobernuak Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabi- deen Zentroaren bitartez (CREENA). 2018/2019 ikas- turtearako, erraterako, 70.000 euro onartuak ditu horretara- ko, baina epea baino lehen aurrekontu hori agortuko balitz, 5.000 euro gehiago ere aurrei- kusiak ditu.

Ekainaren 30a arte egin dai- tezke eskaerak eta ikasleen amak, aitak edo legezko tuto-

reek eska dezakete. Normalean, familiak jasotzen du diru- la- guntza eta familia bera izaten da irakasleak bilatu eta ordain- tzeaz arduratzen dena. Paga- dizabalen kasuan, ordea, Toki Ona institutuak egin ditu bitar- tekaritza-lanak. Ikastetxeak jaso du diru-laguntza eta bera arduratu da irakasleak bila- tzeaz.

Mailaren arabera astean bortz edo zortzi ordu

Ikasleak ikastetxera 21 egun naturaletik goitiko epean modu normalean joaterik ez badu edo gaixotasun kronikoren

bat dela eta, aldizkako bajak (sei egun jarraian eta sei hila- betez guttienez) hartzen badi- tu jaso dezake laguntza. Deial- dian Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hez- kuntzan ari direnentzat dela jasoa dago, eta Lehen Hez- kuntzakoek astean gehienez bortz ordu eta DBHkoek astean zortzi eskola ordu jaso ditz- aketela. Pagadizabal, ordea, Batxilergoan ari da eta bera- ri ere onartua diote.

LH-N ASTEAN BORTZ
ETA DBH-N ZORTZI
ESKOLA ORDU
JASOTZEN DITUZTE

Aldeak

Nafarroako zerbitzuarekin alderatuz, bertzelako sistema eskaintzen diete gaixorik diren haur eta gazteei Araba, Bizkai eta Gipuzkoan. Nafarroan ira- kasleak bilatzeaz etxekoak arduratzen diren bezala, Ara- ba, Bizkai eta Gipuzkoan, administrazioak irakasleen zerrendetatik aukeratzen ditu irakasleak eta irakasle horiek gaixorik dauden ikasleen etxee- tara joanez osatzen dute lanal- dia. Etxe batera baino gehia- gotara joaten dira. Horrez gain, bada bertze alde aipagarri bat: Nafarroan ez bezala, irakasleak etxera ez ezik, ospitalera ere joaten dira eskolak ematera.

Baztan-Bidasoko XXXII. Bertsopaper lehiaketa abiatu da

Lanak maiatzaren 17ra arte bidal daitezke eta sariak Berako Kultur Etxean banatuko dituzte maiatzaren 31n

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso Eskolak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz, Baztan-Bidasoko XXXII. Bertsopaper Lehiaketa antolatu dute. Baztan-Bidaso inguruan bizi direnei bideraturiko lehiaketa da eta euskarazko jatorrizko lanak, argitaratu gabeak eta bertze lehiaketaren batean saritu ez direnak, aurkeztu ahal izanen dira. Gaia, doinua eta neurria norberak aukeratu ahal izanen du.

A mailako parte-hartzaileek (10 urte artekoak) guttienez bertso bat edo bi kopla osatu beharko dituzte. Bi lan sarituko dituzte: irabazleak trofeoa eta 50 euro jasoko ditu; bigarrenak, berriz, trofeoa eta 30 euro.

B mailakoek (11-14 urte) bi bertso edo lau kopla bederen egin beharko dituzte eta sarituek trofeoa eta 100 euro; eta trofeoa eta 70 euro lortuko dituzte, hurrenez hurren.

C mailan (15-18 urte) lau bertsotan paratu dute gutti-neko muga. Irabazleak trofeoa



Sari banaketan antzerkia ere egiten dute bertso eskolakoek. ARTXIBOKO ARGAZKIA

eta 150 euro eta bigarrenari trofeoa eta 120 euro emanen dizkiote.

18 urtetik goitikoek (D maila) zortzi bertso osatu beharko dituzte, guttienez. Txapeldunak eta txapeldunordeak trofeoa eta 200 euro eta trofeoa eta 150 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren.

Lanak maiatzaren 17ra arte bidal daitezke, Berako Kultur Etxera (*Baztan-Bidasoko XX-*

XII. Bertsopaper Lehiaketa, Eztegarapasealekua, 11, 31780 Bera (Nafarroa) helbidera).

Epaimahaia Bortzirietako Bertso Eskolak izendatuko du eta horren erabakia ezin izanen da aldatu. Gisa berean, sariak hutsik utzi ahal izanen ditu, edo aipamen bereziak eman. Sariak Berako Kultur Etxean maiatzaren 31n, ortziralean, 18:00etan egingen den ekitaldian banatuko dira.



			
Egongelak	Logelak	Sukaldeak	Bainuak
			
Gazteentzako logelak	Sofak	Armairuak	Koltxoiak

948 630 537 mueblesamets.com

Mendi Maratoi Erdiaren inguruan hainbat ekintza prest

Ortziralean filma eskainiko dute eta larunbatean haurren lasterketa eta Iker Karreraren solasaldia izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak apirilaren 14an ospatuko den Berako Mendi Maratoi Erdiaren inguruan hainbat ekintza antolatu ditu. Aurten 15 urte beteko ditu lasterketak eta horregatik ekitaldi bereziak antolatu dituzte. Asteburua hasteko, ortziralean, apirilak 12, Kultur Etxean *El hombre que empezó a correr* filma eskainiko dute. Josep Serrak zuzendua, Ibon Cormenzana eta Ignasi Estapé dira protagonista. Sarrera musutruk izanen da, baina dirua jasoko da, Etiopian ur-putzuak sortzen dituen proiektu baterako.

Larunbatean 16:00etan hasita, haur lasterketak eginen dituzte Matzadan. Adinaren arabera, distantzia eta ibilbide ezberdinak izanen dituzte. Larunbatean 17:00etatik 19:00etara dortsalak eta txipak hartzeko aukera izanen da Toki Ona kiroldegian eta 19:30ean, Kultur Etxean, solasaldia eskainiko du Iker Karrera mendi korrikalariak. Aurten, Lyme eritasunaren



Iker Karrera izanen da hizlari.

kontrako elkarte bati lagunduko dio Manttaiek eta Isabako Txapatera landetxean asteburu baten zozketarako txartelak ere saltzen ari dira.

Oinezko ibilaldiak igandean

Lasterketa egunean, igandean, bertze urtetan bezala, bi ibilaldi antolatu dira lasterketa ikustera joateko. Lehenengoa, Laruneraino igotzen dena handik berriz Berara jeisteko (14 kilometro), goizeko 8:30ean abiatuko da eta bigarrena, Landagaintara joaten dena Usategietatik pasatuta, 09:00etan abiatuko da, 10 kilometro ingurukoa. Maratoi Erdia ohikoa den bezala, 09:30ean abiatuko da eta Gazte Trail izanen da aurten ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Abesbatza Zahar Etxean kantari

Martxoaren 19an San Jose Zahar Etxean kantatu zuen abesbatzak, zaindariaren egunean, bizilagunen gozamenerako. Ondotik, Zugarramurdiko Lezeen Egunean ere abestu zuen, txistulari taldearekin batera. Apirilaren 6an Elizondoko Benito Menni erresidentzian abestuko du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Basque Culinary Centerkoak Martikon

Donostiako Basque Culinary Center ikastetxe entzutetsuko ikasleak Nafarroan zehar egin zituzten jardunaldien baitan, martxoaren 22an Martiko lantegian izan ziren, produktuak ezagutzen eta dastatzen. BCCko 37 ikasle etorri ziren, Mikel Zeberio irakasle eta kritiko gastronomikoen eskutik.

LABE ZAR
Astelehenetik ortziraleara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

BRANDONEA, S.L.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidaso, 76 - atea 21-22 • BERA

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Arturo
Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

Mikel Laboa omenduko du Musika Bandak

Azken Trena taldearekin batera kontzertua eskainiko du larunbat honetan 22:00etan Harriondoan

AITOR AROTZENA

Herriko Musika Bandak eta Azken Trena taldeak, Jokin Pinatxoren musika-konponketei esker, emanaldi berezia eskainiko dute apirilaren 6an, larunbatean, Harriondoa kultur etxean, 22:00etan.

Mikel Laboa, euskal abeslari eta musikagilea gogoan, Txoriaren Hegaldia izeneko emanaldia eskainiko dute. 10 urte zu gabe, 85 inguru gure artean lelopean bilduko dira. Maddalen Arzallus bertsolaria izanen da eguneko gonbidatu berezia.



Mikel Laboa gogoan izanen dute.

Sarrerak 10 eurotan salgai daude Zialdo ostatuan eta Telletxea liburu-dendan eta Berako Xugan eta Errekalden.

Ehun dantzari baino gehiago espero dituzte igandeko Tantirudantza jaialdian

A. AROTZENA

Tantirumairu euskal folklore taldeak Udaren laguntzaz antolatutako Tantirudantza jaialdia egingen dute apirilaren 7an. Herriko dantzariak gain, Zumaia Txori Txiki, Faltzesko Makaia eta Lezoko Muxika taldeak izanen dira.

Igandean, 11:00etatik aitzine-ra karrikaz karrika ibiliko dira beraien dantza saioak eskainiz. 12:15ean Zubigainekoa eskainiko dute herritarrek eta plazan egingen dute jaialdia denak batera. 17:30ean Ttipika dantza gidatuak izanen dira plazan (euria egingen balu frontoian).



AITOR AROTZENA

'Conocer Navarra' aldizkariaren artikulua

Conocer Navarra aldizkariaren azken zenbakia aurkeztu zuten martxoaren 26an. Azaleko argazki nagusiaz gain, Rafael Eneterreagak idatzitako artikulua zabala eskaintzen zaio herriari. Aurkezpenean Ana Lizarraga, Gobernu Turismo Marketing Zerbitzuko zuzendariak hartu zuen parte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Tantirumairukoak haur kantari jaialdian

Argazkiko Tantirumairu ikastolako talde horrek Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdiko Antsoaingo saioan parte hartu zuen martxoaren 23an. Ederki kantatu zuten eta apirilaren 13an Barañango auditorioan egingen duten jaialdi nagusian ere parte hartzekoak dira neska-mutikoak.

Xulufraia

EMAKUME ARROPA
OSAGARRIAK
DEKORAZIOA

Udaberriaz blai

Altzate 18, BERA. 948 631 266

ETXALAR
HOTEL-VENTA

lagunarte, familia,
kinto besta...

OSPAKIZUN GUZTIETARA
EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

JAIONE-COKOTEGIA

Etxean
egindako
produktuak

948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Maiatzaren 4an izanen da Etxalarko IV. Mendi Itzulia

Orain arte bezala, 23 eta 34 kilometroko bi ibilbide izanen dira aukeran Altxata elkarteak antolatutako ekitaldian

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren 4an, larunbatarekin izanen da Etxalarko mendi itzuliaren laugarren edizioa. Altxata elkarteak antolatutako bertze urte batez bi ibilaldi izanen dira aukeran: A ibilbidea 34 kilometro eta 1.650 metroko desnibelarekin eta B ibilbidea 23 kilometro eta 1.290 metroko desnibelarekin. Izena emateko epea zabalik dago

iada www.mendizmendi.com web gunean edo egunean bertan ere egin daiteke 06:00etatik 08:00etara plazan. Irteera ordua 07:00etatik 8:00etara izanen da. Federatutakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu gabeek 12. Mendi itzuliko kamisetak salgai egonen dira Elutsan eta Herriko Ostatuan, baita egun berean plazan ere.

Apirilaren 8ko goizaldean pasako da Korrika herritik

Apirilaren 8an, 05:10ean pasako da Korrika herritik. Herriarren artean 5 kilometro eta erdi hartu dira. Larralde azpian hasiko dira lasterka gazteak, jarraian Altxatak hartuko du lekukoa, guraso elkarteak, Larraburua elkarteak, Herriko okindegia eta Elutsa ostatua, Herriko ostatua, Udalak eta *Gure kuadrilla* joanen dira Usategietan goiti. Ondotik Herriko Ostatuak gosaria eskainiko du.

Kantu-bertso bazkaria Lizarietan hilaren 13an

Apirilaren 13an mugaren bi aldeko herriak elkartzeko aitzakian kantu bertso bazkaria egingen da Lizaletako kaskoan 14:00etan. Etxahun Azkarraga herriko bertsolaria ere bertan izanen da Josu Sanjurjo, Maddi Ane Txoperena, Ellande Alfaro, Xumai Murua eta Maindi Muruarekin batera. Txartelak 20 eurotan eskura daitezke Herriko Ostatuan edo 627 033 975 telefonora deituta apirilaren 7a baino lehen.



IRUNE ELIZAGOIEN

Herriko gazteak sagardotegian

Urteroko ohitura mantenduz, sagardotegira irteera egin zuten herriko gazteek martxoaren 23an. Primerako eguraldiarekin, Adunako Aburuza sagardotegira joan ziren autobusean 22 lagun. Bikain bazkaldu zuten eta ondotik juergak goizaldera arte segitu zuten.



IRUNE ELIZAGOIEN

San Jose Zurginaren kofradia

Martxoaren 19an San Jose Zurginaren Kofradiako kideek, ohitura mantenduz, eguerdiko 12etan azkeneko urte honetan hildako bazkideen aldeko meza izan zuten. Ondotik, urteko kuota ordaindu bidenabar, hamaiketako egin zuten Herriko ostatuan.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

www.logurak.com

gaueko konfort-kuxina

Centro Prim
 regina tolosaechebare

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

LARRETXEAK EGYRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

Udaberriko bestak ortziraletik astelehenera

Tailerrak, musika eta dantza, ikuskizunak, mendi-buelta, zinema-emanaldiak... izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 5etik 8ra bitarte besta giroan murgilduko da herria.

Ortziralea, apirilak 5

18:00etan Biltokin egingen duten pizza-tailerrarekin eta Elizatean eskainiko den zinema-emanaldiarekin (12-18 urtekoentzat) hasiko dira bestak. 20:00etan, Barry Manleyren eskutik, umorezko baka-rrizketa izanen dute Eskolazarren; eta 22:00etan mus-txi-mista.

Larunbata, apirilak 6

12:00etan Igantziko gaita ikasleak herrian barna ibiliko dira. Ondotik, kantu-poteoa egingen dute eta 14:30ean mahai-inguruan bilduko dira. 16:30ean haurrentzat eskulan-tailerra izanen dute. 19:00etan kan-kailuek, buruhandiek eta Baz-tango dantzariak hartuko dituzte karrikak. 20:30ean muxikoak dantzatuko dituzte.

Igandea, apirilak 7

08:30ean mendi-buelta gidatua egingen dute, plazatik abia-



Igandean mendi-buelta egingen dute.

tuta San Juan Xar eta Errota ingurura joanen dira. Eguerdian euskal musikak giro-tako aperitiboa hartuko dute eta arratsaldean haur, gazte eta helduentzat zinema-emanaldiak izanen dituzte, 16:00etan, 16:30ean eta 18:00etan, hurrenez hurren. Azken horiek *Dantza* filma ikusi ahal izanen dute.

Astelehena, apirilak 8

Astelehenean goizean goizik agurtuko dituzte bestak. 05:00ak aldera Korrikan parte hartuko dute eta ondotik, indarrak berrartzeko, Biltokin gosalduko dute.



OSKAR TXOPERENA

Hezkuntza-kontseilaria eskolan izan da

Martxoaren 25ean hezkuntza-kontseilaria, azpiegituretako arduraduna, hezkuntzako-ikuskatzailea, Igantziko alkatea eta eskolako zuzendaria eskolan izan ziren. Zentroak dituen hezkuntza-beharrei erantzuteko, eskolako espazioa berrantolatzea izan zuten hizpide.


Igerilekuan lan egiteko eskaintzak aurkez daitezke

Funtzionamendu-lanetarako eskaintzak apirilaren 11ko 14:00 arte aurkez daitezke. Eremuko mantentze-lanak, garbiketa eta gainerakoak egitea (sorosle-lanak izan ezik) izanen da hartzen dutenen zeregina eta denboraldia 1.500 euro ordainduko ditu Udalak.



Hilabetero film emanaldiak izanen dituzte Elizatean

Bi herritarrek proiektu bat paratu dute martxan. Hilabete behin, hilabete lehendabiziko edo bigarren igandean, arratsaldean, haur eta helduentzat film emanaldiak eskainiko dituzte. Filmak pantailaratzeko, Udalak Elizateko bigarren solairua utzi die. Lehen emanaldia martxoaren 10ean izan zen eta hurrengoa apirilaren 7an izanen da, Udaberriko besten barne. Emanaldiak musu-truk dira baina ikusleek gastuei aitzin egiteko borondatea emateko aukera izanen dute.



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Apirilaren 16an, Pintxo Pote berezia
etorri eta disfrutatu!



LA VILLA
Ostatua - Jatetxea - Igantzi

La Villa Jatetxearen irekiera

Karrika Nagusia, 14 - IGANTZI - ERRESERBAK: T. 666 455 124



Zalain
JATETXEA RESTAURANTE



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Jauzena
Denda, 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Musikariz beteko da herria ondoko bi larunbatetan

Apirilaren 6an IV. Trikitixa Jaialdia egingen dute eta hilaren 13an Nafarroako Akordeoilarien Topaketa

NEREA ALTZURI

Trikitixa, pandereta, akordeoia... Musika-tresna horien doinuak izanen dira nagusi ondoko bi larunbatetan.

Larunbat honetan, apirilak 6, laugarren aldiz, Trikitixa Jaialdia egingen da. 16:30etik aitzinera, herriko trikitilari eta panderojoleez gain, Berako Irats Trikitixa Eskola eta Isidoro Fagoaga Musika Eskola, Aurtizko Mendaurren Trikitixa Eskola eta Lesaka Trikitixa Eskolakoek euren emanaldia eskainiko dute frontoian. Lezoko dantzariak ere gonbidatu dituzte eta euren abilitadeak erakusteko aukera izanen dute bildutakoek.

Sarrera bortsu euro ordaindu beharko da eta 12 urtez behe-tikoei dohainik izanen dute. Gainerakoan, parte-hartzaileek oroigarri bana jasoko dute eta publikoaren artean zozketak egingen dituzte. Guraso Elkarteak, bere aldetik, opilak eskainiko ditu.

Omenaldiaren tartean, berriz, aurten herriko elkarteak omenduko ditu Udaleko Kultura Batzordeak.

Akordeoilarien Topaketa

Apirilaren 13an, berriz, akordeoilarien gune izanen da herria. Nafarroako Akordeoilarien Topaketa egingen da eta 100-130 akordeoilari bilduko dira.

11:00etan plazan bilduko dira eta alkateak harrera egingen die. Akordeoilariak fandango zahar bat eskainiko dute. Herriko Etxeak eskainitako hamaiketakoaren ondoren, herriko itzuliari hasiera emanen diote, akordeoilari elkarteak izena ematen dion eta Juanjo Tomasena zenak sortu zuen *Akordeoiarena* piezarekin. Herriko karriketan ibiliko dira eta Goiko Karrikako estatuetan akabaila emanen diote itzuliari. Bazkaria Aterpean izanen dute eta arratsaldean, hainbat kanta jotzeko parada izanen dute.

Akordeoiaren musikak betititik tradizio handia izan du herrian. Akordeoilari onak izan dira eta daude gaur egun ere eta ilusio handiarekin ari dira eguna prestatzen. Informazio gehiagorako, jarri Gregorio Mitxelenarekin harremanetan.

Korrika Ttikia eta eskolarteko bertsolari txapelketa ortziralean

N. ALTZURI

Apirilaren 8an, astelehenean, eskualdeko lurretan izanen da Korrika euskararen aldeko lasterketa. Aranztarrek 873tik 875era bitarteko kilometroak hartu dituzte eta lekukoa eskuz esku pasatuko diete elkarri lasterka ariko diren herritarrek. 04:31n Udalak hartuko du, NA-4020an. Ondotik, Herri Eskola eta Guraso Elkarteak ordezkariei txanda izanen da, Igantziko Bentetako biribilgunean, 04:37an. Segidan, Ekaitza Elkarteak hartuko du; ondoren Arantzako Aterpeak,

04:44an, Etxalar aldera errepide zaharretik jarraituz; eta gero, Arantzako Gazte Asanbladak hartuko du lekukoa.

Guztia girotzeko, ortziralean, apirilak 5, Korrika Ttikia egingen da, 16:30ean hasita. Eskolako haurrez gain, Pelle-Ttikioek, Ekaitza Elkarteak, Guraso Elkarteak, Zahar Txokok eta komertzioek parte hartuko dute.

Korrika Ttikiaaren ondoren, 15-18 urteko gazteen eskolarteko bertsolari txapelketa izanen da, 18:30ean. Bat-bateko saioa izanen da.



AINARA AMOROS

Gazteak sagardotegian

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurten ere herritarrek sagardotegira ateraldia egin dute. Argazkiko kuadrilla martxoaren 23an Astigarragako Sarasola sagardotegian izan zen. Autobusez egin zuten joan-etorria eta giro ederrean ibili ziren.

caser residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimer eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubietta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

TINTALANAK

RAMUNTXXO ERRANDONEA

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!

Pintura-lanak kanpokoak eta barnekoak
Zolak, zatiketak eta beste lan txikiak jartzea
Denden diseinua eta dekorazioa

📍 Zugarramurdi
☎ (+33) 06 03 347 076
✉ tintalanak@gmail.com
🌐 www.tintalanak.com

Malerrekako herri eskolen topaketa apirilaren 17an

Topaketaren IX. edizioa da herrian egingen dena eta goiz-pasa egiteko hainbat ekintza prestatu dituzte

MAIDER PETRIRENA

Saldias, Beintza-Labaien, Ituren, Legasa, Narbarte eta Sunbillako eskoletako ikasle, irakasle eta gurasoak Sunbillan elkartuko dira apirilaren 17an, Malerrekako Herri Eskolen IX. Joko Topaketa egun horretan ospatuko baita. Bertze urte batez, goiz-pasa ederra osatzeko egitaraua prestatu dute.

09:15ean, frontoian elkartuko dira eta azalpen tiki baten ondotik, kanta abestuko dute. 09:30etik aitzinera adinaren arabera banatu eta jokoetan ibiliko dira. Eguraldi ona bada,

Haur Hezkuntzakoak frontoiko plazan jolasak egingen dituzte eta Lehen Hezkuntzakoak herri-kiroletan ariko dira plazan. Eguraldi txarra baldin bada, ordea, Haur Hezkuntzakoak tailerra egingen dute beheko eskolan eta zaharrenek goiko eskolan bertze tailer bat.

11:00etan hamaiketakoak egingen dute eta ordu erdiren buruan, neska-mutikoen Zirkozaurrerekin gozatzeko aukera izanen dute. 12:40an, berriz, bakoitzak bere herrira bueltatzeko autobusa hartuko du.

Ulibeltzak Elkarteko batzarra apirilaren 13an

Apirilaren 13an Ulibeltzak Elkarteko batzarra egingen du, 18:00etan, eta hau izanen da gai-zerrenda: aitzineko aktaren onespina, 2018ko kontuak, junta aldaketa (erdia aldatzea tokatzen da) eta 2019ko bestak. Akitzeko galdera eta eskarien txanda izanen da.

Eskolakoak Xorroxin irratan ariko dira hilaren 11n eta 12an

Apirilaren 11n eta 12an eskolako lagunak Xorroxin irratan esatari lanetan aritzeko aukera izanen dute. Herritarrek, berriz, euren kontuak irrati bidez aditzeko aukera izanen dute. Neska-mutikoen lana 106.5 FM frekuentzian hedatuko dute.



UTZITAKOA

Herritarrak fin-fin musean

Martxoaren 16an Lizarran egin zen Euskal Herriko Mus Txapelketako finalean herritarrek ez zuten hutsik egin. Jaione Otxandorena herritarra eta Timoteo Etcheberria zortzigarren izan ziren eta Jose Mari Arretxea eta Jose Martin Agirre hamabigarren gelditu ziren. Zorionak!



MAIDER PETRIRENA

Giro ederra kantu zaharren bestan

Giro ezin hobea izan zuten martxoaren 16an Ariztigain kanpinean egindako VII. kantu zaharren bestan. Eguerdian, Aurtizko joaldunak eta trikitilari eta panderojoleak ibili ziren eta ondotik, bazkaltzeko tartea ailegatu zen. 22:00 arte kantuan aritu ziren; batzuk dantza ederrak atera zituzten.



Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatzeko Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johtelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com



Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA



- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Indarkeriaren aurkako ipuin-lehiaketak arrakasta

71 lan aurkeztu dituzte guztira eta saridunak zein diren jakinarazi dute dagoeneko

MARGA ERDOZAIN

Zer eginen zenuke zure inguruko norbaiti bikotekideak tratu txarrak eragiten dizkio-lak jakinen bazenu? galdera ardatz, 71 lan aurkeztu dituzte indarkeria matxistaren aurkako I. ipuin-lehiaketara.


Euskaraz idatzitako lanen artean DBHko 1. eta 2. mailako sailari dagokionez, Nerea Esperante, Ane Etxalar eta Aimar Esperante dira sarituak: DBHko 3. eta 4. mailakoen artean, berriz, Ane Etxarte, Ekhiñe Etxarri eta Oihan Martinez. Gaztelaniaz idatzitako

lanen artean Iñigo Oteizarena aukeratu zuten eta 16 urtetik goitikoaren artean Gotzon Plaza, Ainara Elizondo eta Beatriz Maritorenarena.

Ekimen horren bidez, indarkeria matxista jorratu eta sentibilizazioa garatu nahi izan dute. Horretarako, Mendaur institutuko orientatzailea, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria eta Udaleko Nerea Telletxea zinegotzia lanean aritu dira. Epaimahaia Mikel Lakastak, Begoña Alberrok eta Edurne Anzizarrek, Sara Artieda eta Luis Gardek osatu dute.

Laxoari buruzko panela Bearzana pilotalekuan

Nafarroako Gobernuak dirulaguntzari esker, Udalak Laxoari buruzko panel informatiboa paratu du Bearzana frontoiaren sarreran. Bertan jokoaren nondik norakoak azaltzen dira eta testuak argazkiak bidez hornituta agertzen dira.



Sarreran paratu dute.

Errekako judokak bikain Nafarroako Kirol Jokoetan

Nafarroako Kirol Jokoen harira, judoko infantil mailakoek bigarren fasea jokatu zuten martxoaren 23an. Iban Arambelek 1. postua lortu zuen; Maialen Maritxalarrek eta Iñigo Oteizak, berriz, laugarrena.



UTZITAKO ARGAZKIA



Umerezko antzerkia apirilaren 13an, 19:00etan.

Hitzaldiak, antzezlanak, zine-emanaldiak eta aunitzez gehiago apirilean

MARGA ERDOZAIN

Apirilean zer ikusi eta zertaz gozatu izanen da. Hilaren 8an, astelehenean, 19:00etan Herrigunean *Zergatik sufritzen dugu pertsonak?* hitzaldia eskainiko dute Lierni Irizar eta Mirari Telletxea psikoanalistek.

Aitzinetik Korrika

15:00 aldera lasterketak herria zeharkatuko du. San Migel eta Mendaur ikastetxeetako ikasle, irakasle eta herritarrak prest Udalak, Titi ostatuak, Erreka, Doneztebe Futbol taldeak eta irakasle eta guraso elkartekoek erositako kilometroak *ttipi-ttapa*, *ttipi-ttapa* egiteko.

Apirilaren 13an antzerkia

Apirilaren 13an, 19:00etan, *Las Cuñadas* antzezlan eskainiko dute. 60ko hamarkadan kokatutako umorezko

lanak gizarteari kritika egiten dio. Enkarnak lehiaketa batean miloi bat kupoi irabaziko ditu baina denbora tikian itsatsi behar ditu bere bizitza aldatuko dioten hainbat gauza lortzeko. Koinatari, ahizpari eta auzokideei laguntza eskatzen die baina... emakume horien artean liskarrak eta inbidiak sortzen dira... *Las Cuñadas* antzezlan zortzi amek egindako apustua da, «baietz gure seme-alabek bezala guk antzerkia egin».

Zine-emanaldiak

Apirilaren 14an zine emanaldiak izanen dira: 16:30ean *Carvernicolos* eta 18:30ean *Dantza*. Apirilaren 21ean, berriz, 18:30ean *Super Lopez* filma. Azkenik, apirilaren 23tik 26era Liburuaren Eguna ospatuko dute (xehetasunak hurrengo aldizkarian).

Mendi Abesbatza Baluartan izanen da apirilaren 10ean

Mendi Abesbatzako kideak buru-belarri ari dira Buena-ventura Iñiguezen musika lantzen. Datorren asteazkenean, apirilaren 10ean, Iruñeko Baluartan izanen dira eta sarrerak bertan edo Internet bidez erosi ahal izanen dira. Proiektuak segida izanen du.

Udalak bi langile hartu ditu herriko hainbat lanetarako

Sei hilabetetarako kontratua egin die eta irailera bitarte batez ere kanpoko lanak egin beharko dituzte

ARKAITZ MINDEGIA

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza aprobetxatuz, Udalak bi langile kontratatu ditu herrian egin beharreko hainbat lanetarako. Zehazki Ander eta Amaia zubietarrak dira Udalarentzat lanean hasi direnak.

Bi langileak martxoan hasi ziren lanean eta sei hilabetetarako kontratua izanen dute. Udaletik jakinarazi dutenez, irailera bitarte batez ere kanpoko lanak egitea egokitu zaien. Hala nola, karrikak garbitzea, desbrozatzeko lanak egitea...

Indiara bidaltzeko arropak eta oinetakoak bildu dituzte eskolan

A. MINDEGIA

Gobernuz Kanpoko Erakunde bati laguntzeko, arropa eta oinetakoak biltzen aritu dira Pulunpa eskolan. Mariola Solidaria enpresarekin elkarlanean aritu dira bilketak egiten.

Enpresa horrek birziklatzeko diren erabilitako arropak eta oinetakoak biltzen ditu eta Guatemala eta Indiako hainbat proiektu solidariotan parte hartzen du. Joan den astean akitu zuten bilketa eskolan eta bildutakoak Indiara bidaliko dute. Bertze eskolatan ere ezaguna da enpresa.

Skolae programa

Bertzalde, Skolae hezkidetzaren programarekin segitzen dute eskolan. Aldi honetan, ordean, gurasoei bota diete berdintasunerako konpromisoa hartzeko erronka.

Familiei emakumezkoek eta gizonezkoek gisa guztietako ekintzak egiten ahal dituztela erakusten duten irudiak eskatu dizkiete: gizonezkoak etxeko lanetan, emakumezkoak pilotan... Bildutako irudiekin horma-irudi erraldoi bat egin nahi dute eta ondotik, eskolan paratuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Javier Sein, lasterketaz lasterketa

Martxoaren 24an Valentziako Superprestigio MTB Internacional lasterketan 23 urtez azpikoetan laugarren eta maila absolutuan 15. izan zen Javier Sein. Apirilean lasterketa gehiago izanen ditu. Hilaren 7an nazioarteko MTB Arnedon eta Aste Santuetan Volcat MTB Katalunian.



ARANTXA DIEZ

Patxi Zubizarretaren bisita

Pulunpa eskolako 3., 4. eta 5. mailakoek Patxi Zubizarretaren bisita izan zuten. *Xia Tenzinen* bidaia miresgarria izeneko liburuaz solastatu ziren. Haurrek Zubizarretari galderak egin zizkieten eta pozik erantzun zituen. Ikasleek, ordainetan, mikro-ipuak bilduma bat eta ttunturru bat oparitu zituen.

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROI | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

**Construcciones
URBALLO, S.L.**
hargin lanak orokorrean

**Eskatu
aurrekontua
konpromisorik
gabe!**

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:
Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA | T. 610 367 000 / 610 367 009
c.urballo@hotmail.com

Hasiberriendako gitarra-ikastaroak eskainiko dituzte

Txas Esparza izanen dute irakasle eta haurrek zein helduek eman dezakete izena

FERMIN ETXEKOLONEA

Txas Esparzaren eskutik, hasiberriendako gitarra ikastaroak eskainiko da herrian. Haurrei zein helduei bideraturiko saioak izanen dira.

Astean behin zehaztu dute hitzordua. Ostegunetan Herriko Ostatuan bilduko da,

helduekin; haurrekin, berriz, ostiraletan, eskolan. Lerrook idazterakoan oraindik antolatze-lanetan bazeziren ere, saio pare bat izanak zituzten.

Ikastaroan izena eman nahi duenak edo horri buruzko xehetasunak nahi dituenak berarengana jo dezake.

Naroa Elizalde eta Mikele Etxekolonea frontenisean

Naroa Elizalde eta Mikele Etxekolonea lehengusuek Baztango frontenis txapelketan izena eman dute. Lerro hauek idazterako orduan partida batzuk jokatuak zituzten, baina ez dute garaipenik eskuratu izan. Hurrengo partiden berri aurrerago emanen da.

Udalak herriko lanetarako langileak hartu ditu

Urtero bezala, Udalak uda aldera herriko lanetan aritzeko bi herritar hartu ditu. Aurtent Martin Loiarte eta Txomin Perez izanen dira eta dagoneko lanean hasiak dira. Hilabeteotan, herriko mantentze edo moldatze-lanak egin beharko dituzte.



UTZITAKOA

Herritarrak mus txapelketan izan dira

Martxoaren 16an Lizarran jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketako finalean izan ziren Leire Mariezkurrena eta Pili Telletxea, eskualdeko beste zazpi bikoterekin batera. Aurrera egiterik izan ez bazuten ere, musaren aitzakiapean mahai-inguru ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

Egin euskarari klika eta... astelehenean Korrika!

Udalak eta gazteek euskararen aldeko Korrika egitasmoarekin bat eginez, kilometro bat erosi dute. Apirilaren 8an, heldu den astelehenean, 15:40 aldera pasako da herritik. Herritar guztiei euskararen aldeko bidea egiteko gonbidapena luzatu nahi zaie.



Herritar batzuk Korrikan.

Plazaren mendeurrena antolatzeko hilabetero bilkura bat egingen dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Martxoaren 23an, plazaren mendeurrenaren harira antolatu nahi duten ospakizunaz solastatzeko bilera egin zuten. Hamabi lagun inguru bildu ziren eta argazkiak eta artxiboko dokumentuak biltzen hastea adostu zuten, egunean

bertan pantailaratu eta solasaldi bat eskaintzeko. Pixkan-pixkan bakoitzak bildutakoari segida emateko eta egitaraua osatzeko, hilabetero bileratxo bat egiteko asmoa adierazi zuten. Herritarren proposamenak eta laguntza eskertuko dutela jakinarazi dute.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Basoen Munduko Eguna ospatu dute bigarren ez Bertizen

Pertsonen bizitzan oihane duten garrantziaz gizartea kontzientziatu nahi izan dute

TTIPI-TTAPA BERTIZ

Hezkuntza eta Basoak. Basoa maitatzen ikasi ezazu! lelopean, bigarren urtez Basoen Munduko Eguna ospatu zuten martxoaren 17an Bertizko Natur Parkean. Egun honek, NBEko Batzar Orokorrean horrela adostuta, pertsonen bizitzan oihane duten garrantziaz gizartea kontzientziatzea du helburu, baita ingurumenaren iraunkortasunean, elikaduraren segurtasunean eta pobrezia desagertzean betetzen duten paper erabakigarriaz ere.

Helburu horrekin, hainbat ekintza egin zituzten: haurrentzako tailerrak, Aizkolegiko Jauregira bisita gidatuak mikrobusean goizez eta arratsalde, hitzaldiak... Horrez gain, Jesus Garitacelaya mendi ingeniariak *Bertizko Jauregiriaren Basoaren 500 urteko historia* solasaldi interesgarria eskaini zuen eta Luis Lansa eta Vicente Garroren eskutik, *Bizitza oso bat* zuhaitzez gozatzen argazki erakusketa ikusteko aukera ere izan zen. Lorategirako sarrera dohainik izan zen egun osoan.



Aizkolegiko Jauregira bisita, hitzaldiak, tailerrak... denetarik izan zen. UTZITAKOAK

Zapoz betetako ibilaldi gidatuak eskainiko dituzte Baztan-Bidasoaldean

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Turismo Departamentuak udaberrian martxan jarritako *Zapozak eta belaiak* ekimenarekin bat egin du Baztan-Bidasoa Turismoak. Guzti 12 ibilbide proposatu dituzte Nafarroan, martxoaren 23an hasi eta ekainaren 23ra bitarte, eta horietatik bi Baztan-Bidasoaldeko parajeetan egingen dira: Xaretan eta Bertizen. Kirola, kultura, historia eta gastronomia uztartuz pentsatutako ibilbideak dira eta bukaeran eskualdeko produktuen dastaketa eskainiko dute.

Pottoka urdinaren ibilbidea

Ibilaldi hau Urdazubini hasi eta Zugarramurdi akitzen da. Lezetik lezera doa eta gasna zaporea du. Etzelekua gasnategian egingen den dastaketa rekin akituko da. Martxoaren



Pottoka urdinaren ibilbidea.

23an, apirilaren 22an eta ekainaren 1ean eskainiko dute.

Bertizen

Egur zaporea, zuhaitz usaina eta historia zertzeladak ditu ibilbide honek. Natur Parkeko bidezidorretatik pasatzen da eta akitzeko, Ixiart dendan bertako produktuen dastaketa egiteko aukera izanen da. Martxoaren 24an, maiatzaren 4an eta ekainaren 15ean egingen dute.



Ikasleak bokatonak edo bokata bilduki berrerabilgarriak eskuetan. UTZITAKOAK

Hondakinen kudeaketak duen garrantziaz ikasleak sentsibilizatzen

TTIPI-TTAPA

Hondakinen kudeaketaz ikasleak sentsibilizatzeko hainbat ekintza egin berri dituzte Baztango Udalak eta Bortziria eta Malerreka Mankomunitateek Nafarroako Hondakinen Prebentziorako bulegoekin. LH eta DBHko lehen zikloetako ikasleekin 32 tailer

egin dituzte Baztanen, 24 Bortzirietan eta 13 Malerrekan eta 1.112 ikasle parte hartu dute. LHko 1. eta 2. mailako ia 300 ikasle bokata bilduki berrerabilgarriak jaso dituzte eta Doneztebe, Bera, Elizondo eta Lekarozko institutu etako ia 300 ikasle Gongorako Hondakinen plantan izan dira.

Julio Sotok bortzekoa osatu du Anaitasunan

Joxema Leitzak jantzi zion txapela eta buruz burukoan Eneko Lazkoz eta biak aritu ziren

TTIPI-TTAPA

Bertsolarien doinu eta hitzek zein 1.350 entzuleren txalo zaparradek dardarka jarri zuten Iruñeko Anaitasuna larunbatean, martxoaren 23an. Lau orduko saioan Sotoren bertsoek lortu zuten puntu gehien, 1.172 zehazki. Joxema Leitzaren eskutik jaso zuen bere borzgarren txapela (2010, 2011, 2015 eta 2017) eta bukaerako agurrean islatu zuen bere poza.

Eneko Lazkozek lortu zuen bigarren postua, 1.114 puntu eskuratu zituen. Hirugarren sailkatu zen, saio ederra es-

kainita, Xabier Terreros (635 puntu). Joanes Illarregi leitzarra izan zuen gibeletik eta lau puntuko aldea baino ez zion atera (631). Parez pare aritu ziren zortziko ttikian, errefuxiatu bat etxekotu nahi duen adineko bikote baten sentipen nahasiak ardatz.

Julen Zelaiek kontent hartu zuen bortzgarren postua (626,5), eta ez zen guttiagorako izan. Eneko Fernandez izan zen seigarren (620) eta haren atzetik sailkatu ziren Xabat Illarregi (608) eta Xabier Maia (697).



Goitian, zortzi bertsolariak eta, behehian, bertsozaleak. TTIPI-TTAPA

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziakzioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Elkarteko 363 kide bildu dira kantu zaharren bueltan

Urtarrilean hil zen Guateke musika taldeko Ramon Mitxelena iturendarrari omenaldia eskaini zioten

FERNANDO ETXEBERRIA

Dantxarineko Euskal Kantuen Egunak jendetza bildu zuen bertzte urte batez Otxondo jatetxean. Martxoaren 21ean egina zuten hitzordua eta kantuz girotu zuten mahai-ingurua.

Bazkalaurrean oroimenerako tartea ere hartu zuten, urtarilaren 3an hil zen Ramon Mitxelena, Guateke musika taldeko kide ohia, gogoan izan baitzuten. Bere omenez minutu bateko isilunea egin zuten eta segidan Jabier Igoak, bere adiskideak, abesti bat eskaini zion tronpetarekin. Momentu oso hunkigarriak izan ziren.

Bapo bazkaldu ondotik, kafe garaian, kantarako tenorea iritsi zen. Jose Angelen gidaritzapean bi orduko saio eder-raz gozatzeko aukera izan

zuten euskal kantu zaharren errepasoa eginez. Tartean, Erramun Martikorena ere aritu zen kantuan eta txalo zaparrada ederrarekin batera, Xanti Hualde zubietarrak oparitutako makila ere jaso zuen trukean.

19:30ean bukatu zen kantaldia eta Guateke taldekoak igo ziren orduan oholtzara. Garai bateko eta gaur egungo abestiak jo zituzten eta aparteko giroa jarri. Kalejirarekin eman zioten bukaera festari 20:15ean eta 20:30ean atera ziren bueltako autobusak.

Kantu Zaharren bazkaria Dantxarinan egiten duten laugarren urtea da eta urtetik urtera jende gehiago izaten da. Elkarteko kideek eskerrak eman nahi izan dizkiote Biok enpresari eskainitako zerbitzuagatik.



Urtetik urtera jende gehiago biltzen da Kantu Zaharren Egunean. F.ETXEBERRIA



F.ETXEBERRIA

62 mendizalek ibilaldia egin zuten Arantzan barna

Martxoaren 20an lau ordu eta erdiko itzulia egin zuten Oilargata, Izu, Amekurrin eta Itsaszelaieta inguruan. Gero bazkaltzeko elkartu ziren eta Tomasek eman zion musika ukitua bazkalondoari.

Bi ikastaro gehiago eskainiko dituzte Berako kiroldegian

Hainbat hizketagai izan zituzten zuzendaritza batzordeko kideek azkeneko bileran. Alderdi ekonomikoari dagokionez, aipatu behar da 2018a 970,12 euroko superabitarekin itxi zutela eta Nafarroako Kuxta Fundazioak 4.348,26 euroko dirulaguntza eman diola elkarteari. Ikastaroek ere arrakasta dute eta horiek osatzeko Berako kiroldegian ipar martxa eta fitness ikastaroak eskaintzeko asmoa dute. Bukatzeko, gimnasia egunean, luzaketa taldekoak ere aritze-koak direla jakinarazi zuten.



Bastandarrak duela bi urteko Korrikan. KORRIKA.EUS

Apirilaren 8an eskualdetik pasako da Korrika

Ortzegun honetan hasiko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Eskualdean ehun kilometrotik goiti egingen ditu

TTIPI-TTAPA

Badator Korrika! Ortzegun honetan, apirilak 4, Garesen hasiko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia, 17:00etan. Hortik aitzinera, 11 egunez, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan barna 2.560 kilometro egingen ditu. Euskaraldiari keinu egingez, euskararen aldeko jokabideak hartzera deitu du Korrikak, hau da, euskararen alde Klika egitera. Eta horixe da hain zuzen hilaren 14an Gasteizen helmugaratuko den 21. Korrikaren leloa: *Klika*. Omendua, berriz, Txillardegi izanen da, Euskara Batuaren 50. urteurrena dela baliatuz, Txillardegi alor horretan egingako lana goraipatu nahi izan dute. Korrikako antolakuntzaren ustez, «Txillardegi egundoko lana egin zuen, eta euskaldunon historian egin den gauzarik inportanteena ziur aski Txillardegi zor diogu».

Ehun kilometrotik goiti eskualdean

Eskualderaheldu den astelehen goizaldean, apirilak 8, ailegatu da eta arratsaldera bitartean ehun kilometrotik goiti

eginen ditu. Baztan-Bidasoaldean, erraterako, 96 kilometro egingen ditu eta Leitzaldean 11.

Bortzirietatik Xaretara, Baztandik Bertizaranara eta Malerrekatik Leitzaldera Goizaldean, 02:50 aldera, Gipuzkoa aldetik Berara sartzen

denean ailegatu da eskualdera Korrikaren lekukoa. Lesakan, Igantzin eta Etxalarren pasako ditu ondorengo orduak, eta handik Sarako bidea hartuko du. Gero Senperera joanen da eta Ezpeleta eta Ainhoan barna, Urdazubira, Dantxarainera, ailegatu da, 10:50 aldera. Xareta utzita, Baztanerako bidea hartuko du Korrikaren lekukoak.

Amaiturik Elbetera joanen da eta Elizondon 13:20 aldera espero dute. Baztandik Bertizaranara joko du eta 14:30ean Narbartera ailegatu da euskararen aldeko lasterketa. Malerreka joanen da gero eta ordu erdi beranduago Donezteben izanen da. Elgorriaga, Ituren, Zubieta eta Ezkurra


pasata Leitzara 18:00 aldera ailegatu da 21. Korrika.

Garesera autobusa

Korrika hasiko den egunean, ortzegun honetan, Baztan, Bortziriak eta Malerreka solaslagunak Garesera ateraldia antolatu dute. 09:05ean Oronoz-Mugairin autobusa hartuko dute eta Korrika hasiera dela eta Garesen prestatu dituzten ekitaldietan parte hartuko dute.

Korrika kulturala eta Korrika Tikiak

Korrika girotzeko, hainbat dira herriz herri egiten ari diren kultur hitzorduak. Horrez gain, Bortzirietan Korrika Tikiak antolatu dituzte. Ortzirale honetan, apirilak 5, Arantzan, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan euskararen alde lasterketa ibiliko dira. Arantzan, 16:30ean hasiko da Korrika Tikiak, Etxalarren 14.30etik 16:00etara egingen dute, Igantzin 15:30ean Sarrola auzotik abiatuko da eta Lesakan, 15:00etan egin dute hitzordua. Beran, berriz, astelehenean, apirilak 8, 11:00etan egin dute hitzordua. Altzateko plazatik abiatuta bi kilometroko ibilbidea egingen dute.





Urteik urtera emakume gehiagok parte hartzen dute. ARTXIBOKOA

XLI. Herri Krosa apirilaren 13an herrian

Aurrez www.kronoak.com atarian eta egunean bertan Aurrera elkartean izena eman daiteke

JM BARRIOLA

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Aurrera Kirol Elkartearen eskutik, apirilaren 13an, larunbatean, Herri Krosa izanen dute.

Ibilbideak eta ordutegiak kategoriaren arabera

Ohi bezala, benjaminek, 2010-2019 artean sortutakoek, emanen diete hasiera XLI. Herri Krosari. 16:30ean abiatuko dira eta 800 metroko ibilbidea egingen dute. 17:00etan gazte txoek (2003-2009 bitartean sortutakoek) hartuko dute lekukoa eta 2.250 metro egingen dituzte.

Maila absolutuan (2002tik aurrera sortutakoek) bi ibilbide izanen dituzte aukeran: 4,5 kilometro (bi itzuli) edo 9 kilometro (4 itzuli) egin ahal izanen dituzte eta izen-ematerako orduan bietako zein egingen duten zehaztu beharko dute. 17:30ean abiatuko dira. Guztiek plazan hasi eta bukatuko dute ibilbidea.

Izen-ematea zabalik

Benjaminek eta gaztetxoek ez dute ordaindu beharko. Mai-

la absolutuan, apirilaren 11a (22:00 arte) baino lehen izena ematen dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte (Aurrerako kirolariei 8); egunean bertan ematen dutenek, berriz, 15 (Aurrerako bazkideek 10).

Izena ematerakoan izen-emate fitxa bete beharko dute eta momentu horretan jasoko dituzte lasterketa egiteko dortsala eta txipa. Azken horren alokairurako 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Sariak

Benjaminei dominak emanen dizkiete eta kategoria bakoitzean lehenengo eta bigarren sailkatuek ez ezik, lehendabiziko leitzarrak ere trofeoa jasoko du. Gainera, izena ematen duten leitzar taldeek (gutxienez bi emakumezko eta bi gizonenezko osatua) oilasko pareta eskuratu ahaliko dute (baldintza zehatzak webgunean eskura daitezke).

Sari-banaketa arratsaldean egingen da eta aurretik arratsaldekoa izanen dute Karrapean. Osasun arreta eta dutxa-zerbitzua eskainiko dute, herriko kiroldegian.

Transgenikoei buruzko hitzaldia apirilaren 11n

LeitzEKO kontsumo-taldeak, Torrea elkartearen laguntzaz, transgenikoei buruzko hitzaldia antolatu du hilaren 11rako, 19:00etan, Torrean. Jose Olarietak eskainiko du hitzaldia eta ondoren elikagai transgenikoez osatutako pintxoak dastatzeko aukera izanen da.

Liburutegia itxita apirilaren 15etik 28ra

Herriko irakurle-taldea Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura laztana* liburuaz ariko da apirilaren 10ean, heldu den asteazkenean, 18:00etatik aurrera. Aste Santuko oporrak direla eta, hilaren 15etik 28ra bitarte liburutegia itxita egonen da.



JOSUNE MARZOL

Anaitasun bi anaiak

Joanes eta Xabat Illarregi oholtza gainean elkarrekin ikusteko aukera eman zuen Anaitasun jokaturako finalak. Herritar ugari joan ziren beraiei babesa ematera eta bukaera denek argazkia atera zuten. Maila polita erakutsi zuten eta argi utzi bide luzea dutela aurretik. Zorionak!



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasleek klima aldaketa salatu dute

Amazabal institutuko ikasleek gobernuei klima aldaketari aurre egiteko neurriak hartzea eskatu zieten, martxoaren 15ean. Klima aldaketaren aurkako kartelak prestatu eta elkarretaratzea egin zuten. Azkenik bideoak ikusi eta bakoitzak egin dezakeena azaldu zuten.

Familien txokoa apirilean eta maiatzean Leitzan

Apirilaren 9an hasiko dira saioak eta apirilaren 5a arte eman daiteke izena

JM BARRIOLA LEITZA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bederatzi eta hemezortzi hilabete bitarteko haur eta gurasoentzat familien txokoa antolatu du.

Helburua

Saio horien helburua adin tarte horri dagozkion gaiak lantzea, gurasoen esperientziak partekatzea, kezkak eztabaizatzea eta argitzea, jolas librean aritzea, emozioak jorratzea edota osasun-gomendioak ezagutzea da.



9-18 hilabete bitarteko gurasoentzat.

Lau saio

Guztira, ordu eta erdiko (11:00etatik 12:30era) lau saio eskainiko dituzte Leitzako udaletxeko lehendabiziko so-

lairuan: apirilaren 9an eta 30ean eta maiatzaren 14an eta 28an, zehazki.

Izen-ematea

Izen-ematea ostiralera arte, apirilak 5, dago zabalik eta plaza kopuruak mugatuak dira. Dohainik da eta apuntatzeko edo informazio gehiago eskuratzeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatera, 948 51 08 40 telefonora, dei daiteke.

Maiatzaren 21ean hitzaldia

Horrekin batera, Mankomunitateak guraso izatera bidean direnei «tramiteak kudeatzen, eskubideak ezagutzen, familiako aldaketak aurrera eramaten, haurraren beharrak aztertzen, zainketa-lanetan, gurasotasunaren alde ikutuak azaleratzen...» laguntzeko hitzaldia ere antolatu du. Maiatzaren 21ean, zehaztu dute hitzordua udaletxeko lehendabiziko solairuan 11:00etatik 12:00etara.

Korrika apirilaren 8an herritik pasako da

Apirilaren 8an, astelehenean, Korrika herritik pasako da, 18:00 aldera. Korrika kulturalaren harira, martxoaren 28an *Txilardegiren klika* dokumentala eta hilaren 31n *Erradikalak* gara ikuskizuna eskaini zituzten. Giroa epel dago eta korrikarako prest daude.

EH Bilduko batzarretan 98 proposamen

Azken asteetan EH Bilduk egin dituen batzarretan 98 proposamen jaso dituzte, 77 batzarretan eta 21 posta elektroniko. Jakinarazi dutenez, herri-programa osatzerako orduan herritarrek egindako iradokizunak kontuan hartuko dituzte.

Erakutsi eta probetu aukerak!

2019-2021

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Uharte Gotzaina, 1- behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20	%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37	%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55
%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTIMEDERM markan ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08
%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76	
%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74	%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20
%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	

Umore Onako zuzendaritza taldea aldatu dute

Ohiko batzarra aho batez onartu zituzten aurreko bilkurako akta, oroitza-txostena, balantzea eta 2019ko aurrekontua

TTIPI-TTAPA

Larunbatean, martxoaren 16an, egin zuten Umore Onako ohiko batzarra. Aurreko bilkurari zegokion akta, oroitza-txostena, gastuak zein balantzea eta 2019rako aurrekontuen onspena onartzearekin batera, zuzendaritza batzordeko kideak zehaztu zituzten.

Orain artean batzordean egon diren bost kidek eta batzarrean zehazturiko beste bostek (bi urtero aldatzen direnak) osatutako taldea zehaztuta dago. Lehendakariorde Jesus Mari Apezetxea;

erosketa-arduradun Pili Untxalo; diruzain Fermin NARBART; eta bi bokalak, Eli Apezetxea eta Xabier Etxegia, dira aurtengo sartutakoak.

Era berean, hiru herritar gazte elkartearen izena eman zuten eta hirurak onartuak izan ziren. Joan den urtean bost sartu ziren. Urte batzuz bazkideak sartzeko joera izoztuta egon dela aintzat hartuz, elkartearen kideek «aberasgarritzat» jo dute bi urtez zortzi kide sartzeko. Horrela bada, egun 246 bazkide daude elkartearen.

'Errementari' filma ikusteko aukera apirilaren 14an

Udalak, Kultur Taldeak eta Euskara Zerbitzuak antolatuta, 16 urtetik gorakoentzat *Errementari* filma eskainiko dute apirilaren 14an, igandean, 18:30ean. Ganbaran zehaztu dute hitzordua eta herritarrei bertaratzeko gonbidapena egin diete.

Kotxeko 'biñeta' ordaintzeko epea zabalik

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea irekita zerga egutegiari hasiera eman dio Goizuetako Udalak. Apirilaren 12ra arteko tartea izanen dute herritarrek herrian altan emanda dituzten ibilgailuengatik dagokien kopurua ordaintzeko.



FELIX LOIARTE

Korrika ttikia hileko bigarren asteburuan

Korrika ofiziala herritik pasako ez den arren, izanen da aurtengoan ere korrikarako tarterik. Hau idazterako orduan ez zuten zehaztua apirilaren 12 edo 13an izanen ote zen, baina Korrika ttikia antolatzen hasiak ziren. Petoak eta kilometroak salgai jarriko dituzte egunean bost euroren truke.

Soraluzeko lau eta erdiko txapelketa irabazi du Iker Salaberriak

Martxoaren 12an, Bergarako pilotalekuan jokatu zituzten finalak eta elite mailan, 22-6 irabazi zion herritarrek Iraitz Zubizarretari. Hirugarren aldiz segidan irabazi dio ASPEREkin aurrekontratua duen ataundarrari, Miguel Soroa eta Lezamako txapelketetan ere garaile suertatu baitzen.



UTZITAKO ARGAZKIA

30 urteren ondotik itzaletik argitara atera dute Bertizko beirate modernista

TTIPI-TTAPA BERTIZ

30 urtez itzalpean gordea izan ondotik, zaharberritu eta argitara atera dute Bertizko jauzerriko kapera ondoan dagoen markesinako beirate modernista aberatsa. Nafarroako Gobernuak sustatu ditu Violeta Romero errestauratzaile

teknikoak zuzendu eta Harri(d) ura eta Vitrales Mikel Delika espezialdutako enpresek egindako zaharberritze-lanak. 33.000 euroko aurrekontua izan dute. Prozesua eta beiratea ikusteko *Bertizko argia* erakusketa zabaldu dute martxoaren 17tik irailaren 29ra.



Bertizko beiratea dotore gelditu da zaharberritze-lanen ondotik. UTZITAKO ARGAZKIA

Eskoletxeko lanek behar zuten bultzada jaso dute

Leader programari esker proiektuaren %70a ordaintzeko diru-laguntza lortu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Eskoletxeko eraikinean hainbat berritze lan egiteko asmoa zuela azaldu zuen Udalak urte hasieran. Hasteko, leiho guztiak aldatuko dituzte eta horretarako dagoeneko lortua dute Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza (lanen %80 bere gain hartzen duena). Eskola gaineko etxebizitzetako bat eraberritu eta erabilera anitzeko espazio bat sortzea zen Udalak burutan zuen beste proiektua eta Europako Batasunak eta Nafarroako Gobernuak onartu berri duten dirulaguntzari esker gauzatu ahal izango da.

Leader programaren baitan aurkeztu zuen proiektua Udalak, 69.478,20 euroko gastua aurreikusi dute eta %70eko laguntza izango du; 48.634,74 euro.



Eskoletxeko eraikina. ARTXIBOKOA

98,98 metro² erabilgarri

Etxebizitza goitik behera aldatuko dute, logelak bota eta jangela, bilera gela, ikus-entzunezko gela, biltegia eta komunak eraikiko dituzte. Eskolako toki faltari ere irtenbidea emango diete horrela, informatika edota musika gela bezala erabiliko dituzte eta bilera gela edo ikus-entzunezko gela. Dena ongi bidean, lanak uda partean egitea aurreikusia dute.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bi kilometro Korrikaren alde

Apirilaren 8an, 18:00ak aldera pasako da Korrikaren lekukoa Leitzatik eta aresoarrek ere izango dute korrikarako beren tarte. Bi kilometro erosiak dituzte: 1.000 eta 1.001a, Leitzako herrigunetik Erasote aldera doan errepide zatia. Korrika egin ondoren, afari merienda ere egitekoa dute.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena abiatu da irakurzaletasuna bultzatzeko

TTIPI-TTAPA

Euskarazko liburuak irakurtzea sustatzeko *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena jarri dute martxan, Malerrekan, Leitzan, Areson, Goizuetan eta Aranon. Bertako Euskara Zerbitzuak eta Euskaltzaleen Topagunea dira antolatzaileak eta maiatzaren 31 bitartean gauzatuko da.

Helburuak


Helburua herritarrek euskarazko liburuak irakurtzera animatzea da, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatuz. Ekimenak, besteak beste, parte hartzea saritzen du, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emanez eta liburuak oparitzera gonbidatuz.

Hiru pauso eman behar dira

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pauso eman behar dira bertan parte hartzeko. Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, alegia. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izanen da. Liburuak irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburu eta zer iritzi dugun. Fitxa hori beteta, liburutegian erosteko-txekeak emanen digu, zehaztutako liburu-dendan erabiltzeko. Azken pausua, liburuak oparitzea da: lagun bati, senide bati edo norbere buruari.

Parte-hartzea saritzen da

Liburutegian jasotako erosteko-txekeak, euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera emanen du. Horrez gain, apiril eta maiatzaren bukaeran, 30 euroko balioa duen erosteko-txeke bana zozketatuko du liburu-



Maiatzaren 31ra arte luzatuko da.

tegiko arduradunak, hilabete bakoitzean irakurketa fitxa bete dutenen artean. Txeke horrek euskarazko liburuak erosteko aukera emanen du. Udaberrian garatuko da berriz ere ekimena, opor aurreko hilabeteak garai onak direlako liburutegian zein liburu-dendan udako liburuak aukeratzeko. Ia bi hilabete eta erdiko iraupena izanen du kanpainak liburutegietan, baina erosteko-txekeak liburu-dendan erabiltzeko epea ekainaren 15a artekoa izanen da.

Non eskuratu liburuak

Leitzako liburutegi publikoak eta Doneztebeko liburutegi publikoak parte hartzen dute ekimenean eta liburu dendei dagokienez, Malerrekan Doneztebeko Ostiz liburu-dendan, Leitzan eta Areso aldean, Maimur eta Astitz liburu-dendetan eta Goizuetan eta Aranorako Hernaniko Elkar liburu-dendan eros daitezke liburuak.



Lanbide Eskolako ikasleak, murala margotzen. UTZITAKO ARGAZKIA

Laneko arriskuen prebentziorako I. topaketa egin dute

Elizondo Lanbide Eskolako sarreran 'Sufritzea baino hobe, prebenitza' leloa margotuz akitu dute proiektua

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 23an hasi eta martxoaren 25era arte, laneko arriskuen prebentziorako I. topaketa egin dute Elizondoko Lanbide Eskolan. Eskolako lanbide familia guztiek parte hartu dute topaketa hauetan, gaiarekiko sentsibilizatu eta elkarlana sustatuz. Topaketa hauen bidez, ikasleei Laneko Arriskuen Prebentziorako Oinarrizko Teknikari ziurtagiria emateko landu behar diren edukiak eta ikasleen parte-hartze aktiboa ere uztartu nahi izan dituzte.

Topaketei hitzaldi batekin eman zieten hasiera eta inguruko enpresetan istripua izandako bi lagunen testigantzak entzuteko aukera izan zuten: Denis Lizasoainenak eta Ugutz Zelaiaetarenak. Hitzaldi honetara gonbidatuak zeuden Andoni Larralde (ELA), Gorka Bueno (LAB) eta Lourdes Cuesta (STEILAS) sindikatuetako ordezkariak ere. Horiakin batera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Gixane Grau teknikariaren azalpenak ere aditu zituzten.

'Sufritzea baino hobe, prebenitza' lelo irabazlea

Topaketa hauen baitan, lehiaketa berezi bat ere antolatu zuten, laneko arriskuen prebentzioa gaitzat hartuta, ikasleei lelo eta mural bat sortzeko gonbidapena eginez. Lantokietako Prestakuntza eta Orientabidea ikasten duten ikasleek eta eskolako zikloetako ikasleek taldeka, 16 lelo eta mural aurkeztu zituzten lehiaketara. *Sufritzea baino hobe, prebenitza* izan zen lelo irabazlea, Erdi Mailako Eri-zaintzako Laguntzaile Zikloko taldeak proposatua. Mural

HORMA-IRUDI BAT MARGOTU DUTE ESKOLAKO SARRERAN

'SUFRITZEA BAINO HOBE, PREBENITZEA' LELOA IRABAZLE

gustukoena, berriz, Erdi Mailako Administrazio Kudeaketako bigarren mailako ikasleek proposatutakoa izan zen. Martxoaren 25ean, Malmö enpresako J. Angel Perotxena diseinatzailearen lankidetzarekin, lehiaketan irabazle suertatuko leloa eta ikasleek landutako mural guztiekin, horma-irudi bat margotu zuten eskolako sarreran proiektuari bukaera emateko. Proiektuak segida izanen du hurrengo hilabetetan, eskolan lantzen ari diren berteztortzi proiektuekin batera, Kimua programaren barnean antolatutako lehiaketara aurkeztu baita.

Ikasitakoa praktikara

Ikasleek taldeka laneko arrisku faktoreak ebaluatzen, neurtzen eta planifikatzen ere ikasi zuten. Lanean izaten diren arriskuen aniztasuna ezagutzeko modua ere eman zuten hainbat ziklotako ikasleak elkarlanean aritzeak, informazioa elkartrukatu baitzuten. Ikasitakoa praktikara eramanez, larrialdi baten aitzinean ikastetxea hustutzeko simulakroa ere egin zuten.

«Topaketa aberasgarria»

«Eskolarendako, izugarri aberasgarriak izan dira topaketak. Eskolan bertan dauden lanbide familietan gertatzen diren arriskuen elkar trukaketa baliatu nahi izan da lantokietan agertu daitezkeen arrisku faktore guztiez ikasleak jabetzeko. Ikasleen etorkizun hurbileko lanpostuetan arriskuei aitzin egiteko baliabideak eta lan ohiturak txertatzeko asmoa dago egindako guztian. Azpimarragarria da eskola mailan proiektuan parte hartzen ari diren irakasleen arteko lankidetzeta eta ikasleen ikasteko gogoia ere. Hori guztia eskolako zuzendaritzaren sustapena eta orain arte gonbidatuak izan diren kanpoko agente guztien interesa eta elkarlanari esker ari gara aurrera eramaten», adierazi dute LAPO moduluko irakasleek.

BRT Menditarrak taldearen gaupasa larunbatean Larraintzarren

TTIPI-TTAPA

Menditarrak BRT errugbi taldearen gaupasa hamaseigarren urtez egingen da, aurtten, apirilaren 6an Larraintzarren (Ultzama). Inguruan errugbiaren kirol eskaintza mantentzeko behar beharrezko oinarri ekonomikoa da ospakizuna, antolakuntzan zailtasunak eta eskakizunak areagotuz baitoaz urtez urte. Afarirako txartelak 25 eurotan salgai daude apirilaren 3a arte Baztango Intzan eta Kasinon, Ultzaman Larraintzar eta Iraitzotzeko ostatueta eta Doneztebeko Titi ostatuan. Etxera (Doneztebe, Elizondo edo Iruñera) bueltatzeko autobusa ere izanen da (5 euro).

Egitaraua

Apirilaren 6an, larunbatean 21:30ean zikiro afaria egingen dute frontoian eta kantu zaharrik, sorpresak eta bertze zenbait ekintza izanen dituzte. 00:30ean Puro Relajo taldea ariko da frontoian eta ondotik Trikidantz eta Dj Kiriki ariko dira. Divertis-en gastatzeko 300 euroko bono bat (sarrerak, 6 Nazioak, bidaiak, bainuetxeak...) eta eskualdeko produktuen zozketa egingen da 02:30 aldera.



Gaztetxoak jokoan Lekarozen.

Transgenikoei buruzko mintzaldia apirilaren 12an

Gaia aditua den Jose Ramon Olarietak eskainiko du, Elizondoko Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Hazitik Hozie elkarteak antolatuta eta Baztango agroekologia eskola herritarren egitarauaren barnean, apirilaren 12an transgenikoei buruzko solasaldia egingen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. 19:30ean hasiko da eta Jose Ramon Olarieta izanen da hizlaria. Nekazal ingeniari zaindaria da eta Eledako irakaslea. Som lo que sembrem elkartean parte hartzen du Olarietak eta Asenblea Pagesa nekazarien elkarteko kidea ere bada. Aipatzekoa da, 2018an *Transgénicos ¿de verdad son seguros y necesarios?* liburua argitaratu zuela eta gaia sakon landu izan duela. Mintzaldia gaztelaniaz izanen da.

Europar Batasasunean Portugalen eta Espainiar Estatuan bakarrik produzitzen dira



Jose Ramon Olarieta. ARTXIBOKOA

transgenikoak. Nafarroako datua ere nabarmentzekoa da; 8.300 hektarea daude eta Baztanen kontsumitzen den pentsu aunitz transgenikoa da.

Badira hogeitazazpi urte hazi transgenikoak han eta hemen ereiten hasi zirenetik eta geroztik, horren ondorioei buruz azterketa ugari egin dira ingurumenean, osasunean eta nekazaritza-ereduetan duen eragina behatuz.

CC Baztandarrak txirindularitza eskola Lekarozen

Joan den urtean Txokotoko bestetan hasitako bidetari eutsiz, CC Baztandarra txirindulari elkarteak, 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako txirindularitza eskola landu nahi du. Apiriletik ekainera Lekarozko ikastetxean elkartuko dira, astear-tetan, teknika ikasteko eta mendi bizikletarekin konfiantza hartzeko helburuarekin. Egitasmo honen berri emateko eta entrenatzaileak zein izanen diren ezagutzeko, gurasoei bilera egin zuten martxoaren 29an.

Elizondoko Lanbide Eskolak lan-poltsa kudeatuko du

Aurten Elizondoko lanbide eskola, frogatutako, bere lan-poltsa kudeatzeko Inlan erreminta berria erabiltzen ari da, ikasle eta ikasle ohien laneko egoeraren jarraipena hobetuz. Effect+Inlan, ikastetxei zuzendutako zerbitzu bat da, ikasleen segimendua, lan-poltsaren kudeaketa eta lantokiko prestakuntzaren jarraipena erreminta bakarrean biltzen dituen. Komunitate bereko bertze ikastetxeekin sarean lan egiteko aukera ere eskaintzen du, lan eskaintzak, etab. konpartituz.



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAITANE MARITORENA

Goieneko kooperatibaren berri Anizen

Anizen GoiEner kooperatibako kide bat izan zuten martxoaren 21ean, kooperatiba honen nondik norakoak azaltzen. Jendeak interesa erakutsi zuen, 26 lagun bildu baitziren. Aski solasaldi interesgarria izan zen, energia nondik lortzen dugun, merkatuaren aferak edota faktura ulertzeko.



UTZITAKOA

Ibur errekan beheiti piraguan

Xanti Garmendia eta Albaro Soule baztandarrek Ibur erreka piraguan egin zuten martxoaren 19an. Irurritako eskola zaharretik hasi eta Arraiozen akitu zuten. Denera 5,23 kilometro egin zituzten ordubetean eta kontatu digutenez, gustura gelditu ziren: «ur gehiagorekin egiteko irrikitan».

Oharritu Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Esnetako behien ekoizpen ekologikoa hizpide izan dute

Alderdi teknika ezagutzeaz gain, Asturias eta Kantabriako esperientziaren berri izan zuten martxoaren 18an Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Mendiko nekazaritzari aterabidea emateko nahiarekin martxoaren 18an esnetako behien ekoizpen ekologikoa aritzeko, abeltzainendako jardunaldi teknika egin zuten Elizondoko Arizkunenea kultur etxean, INTIAk antolatua. Lan-saioan, alde batetik INTIAko Josepe Saez eta Jone Lizartza solastatu ziren, ekoizpen ekologikoa baldintzak eta alderdi teknikoak aztertuz eta horiek eredu konbentzionalarekin alderatuz.

Bereziki Baztango behitegi-taz aritu ziren, behitegi hauen neurri eta baldintzetaz eta ekologikorat pasatuz gero ematen diren hobekuntza ekonomikoetaz.

Asturias eta Kantabriako berri

Bertze aldetik Jairo Garcia eta Miguel Sanz, Asturias eta Kantabriako baserritarrek bere esperientziak aritu ziren. Behitegi konbentzionalak izatetik ekologikorako bidea nola egin zuten aipatuz eta ekologikoa arituta horrek ekarri dien ho-



Jairo Garcia eta Miguel Sanz.

bekuntzaz, baina ikasi beharraz ere bai. Aldi berean esne ekologiko gero eta gehiago eskatzen ari direla jakinarazi zuten eta Asturias aldeko esne zentralak esne ekologikoa interes bizia dutela.

Saioa, nolanahi ere, Joseba Otondok Baztango alkateak ireki zuen, udalaren eskariz egindako lan-saioa izan baitzen. Alkatearen erranetan mendialdean nekazaritzak irauteko lurrarekin lotutako produkzio ereduak bulkatu behar dira. Akitzeko, galderak eta mahai-ingurua ere izan zituzten.

Gaur egun esnetako behiak dituzten 28 etxalde daude Baztanen.



IRANTZU IRISARRI

Baztan Ikastolakoak kantari jaialdian

Bertze urte batez, Baztan Ikastolako ikasleek Nafarroako Haur eta Gaztetxoek Kantari Jaialdia parte hartu dute. 6. mailako ikasleek Lakuntzan egindako saioan izan ziren eta Huntzaren *Gaztetxeak bizirik* kantarekin martxa ederra paratu zuten.



JUAN MARI ONDIKOL

Erratzuko Anunciacion Duhaldek 100 urte

Erratzuko Anunciacion Duhalde Erramuzpek 100 urte bete zituen martxoaren 25ean. Egun horretan, senideen bisita jaso zuen Elizondoko Zahar Etxean, tartean maiatzaren 97 urte beteko dituen Florentxi ahizparena. Larunbat honetan familia guztiarekin ospatzeko asmoa zuen mendeurrena.

Denok Bat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortzenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 • F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 • F. 948 451 304

Berroetako III. Mendi Maratoi Erdia maiatzaren 19an

Lasterketan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 15a baino lehen eman beharko dute izena

TTIPI-TTAPA BERROETA

Berroetako III. Mendi Maratoi Erdiak badu data: maiatzaren 19an egingen da. Berroetatik abiatu (370 metro) eta Elorre-gin barna, Saioa (1.419 metro) eta Okolin (1.355 metro) igo ondotik, Gartzaga (1.291 metro), Larraldeko erreka eta Uzketen beheiti Berroetako plazan izanen du helmuga. 21,6 kilometro luze eta 1.274 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea izanen da.

Kirolariak 09:00etan abiatuko dira (08:00etan hasiko dira dortsalak banatzen) eta bi ordu lehenago, 07:00etan abiatuko dira lehen aldiz egingen den oinezko martxan parte hartuko dutenak.

Luntxa eta zozketak

Bortz anoa-gune izanen dira (hiru likido/solidoenak eta bi likidoenak) eta lasterketa akitzerakoan luntx bat izanen da parte-hartzaile guztientzat. Lasterkariak eta oinezko mendi martxako parte-hartzaileak bakarrik izanen dute luntxean eta sarien zozketan parte hartzeko eskubidea.



Lasterkariak 2017ko maratoi erdian.

Sariak

Sariei dagokienez, emakumezkoetan eta gizonezkoetan hiruna sari banatuko dituzte: 120 euro eta txapela irabazleentzat, 80 euro bigarren helmugaratzen direnentzat eta 50 euro hirugarren ailegatzten direnentzat.

Parte-hartzaile kopurua mugatu egin dute eta gehienez, 300 lagunek parte hartu ahal izanen dute. Izen-ematea Internet bidez soilik egin daiteke eta maiatzaren 15a arte izanen da horretarako aukera, berroetasaioa.wordpress.com eta herrikrosa.eus webgunetan. Korrikalariak 22 euro ordaindu beharko dituzte eta oinezko ibilbidea egingen dutenek 10 euro.



Okintza ekologikoaren ikastaroa martxoaren 22an egin zuten. UTZITAKOA

Okintza ekologikoaren ikastaroa egin dute Elizondon

TTIPI-TTAPA

Hainbat arrazoiengatik bizpahiru aldiz gibelatu ondotik, joan den martxoaren 22an okintza ekologikoaren ikastaroa egin zuten Elizondon, zehazki eskolako sukaldetan. Udalak antolatuta egin zuten, Baztango agroekologia eskola herritarren barnean.

Eduardo Salvador Basque Culinari Centerreko irakaslearekin hiru ordu eta erdiz arituziren okintzaren oinarriez: orantzaz, irinen inguruan, ogi motez, labeaz eta ogia egosi eta erretzeaz. Horrez gain, bildutakoek ogi ekologiko egin berria etxerat eraman ahal izan zuten.

Musika eskolako saioak apirilaren 15etik 17ra

Udal Musika Eskolako ikasleek hainbat entzunaldi eskainiko dituzte apirilaren 15ean, 16an eta 17an Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Lehenbiziko bi egunetan 17:00etatik 18:00etara izanen dira eta hirugarrenean 16:30ean egin dute hitzordua.

Bailableak apirilaren 14an Elizondon

Baztango dantzarien eta gaiteroen eskutik, bailableak izanen dira apirilaren 14an Elizondoko plazan. Beti beza-la, muxikoak, jotak, larrain-dantza... dantzatzeko aukera izanen da. 12:30ean hasiko dira. Eguraldi txarrarekin, frontoi estalian bilduko dira.

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

IDIAZABAL

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · T.943 623 130

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

MARMOLÉS SOULE

www.marmollessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK



Duela bi urte gauerdiari ailegatu zen Korrika Sarara. KORRIKA.EUS

Astelehen goizean herritik pasako da Korrika

Lizarietan barna, 07:00 pasata ailegatuko da lekukoa herrira eta gero Azkainerako bidea hartuko du

TTIPI-TTAPA

Klika lelopean, astelehen honetan, apirilak 8, Saratik pasako da euskararen aldeko lasterketa haundia. Etxalar aldetik etorriko da. 06:20 aldera Lizarietara ailegatuko da eta 07:13an Saran izanen dela aurreikusi dute. Gero, Azkainerako bidea hartuko du bai-

na aitzinetik, herrian barna kilometro batzuk egingen ditu 21. Korrikak.

Gosaria

Euskararen alde lasterka ibili ondotik, Herriko Etxeko Edantegian gosaria eskainiko diete Korrikan parte hartzen duten haurrei.

Haur eta helduendako antzerkiak apirilaren 13an

TTIPI-TTAPA

Haur nahiz helduek euskarazko antzerkigintzarekin gozatzeko aukera izanen dute apirilaren 13an.

Alde batetik, Dejabu panpin laborategiaren eskutik, *Linbo planeta* haurrentzako antzez-lana ikusteko aukera izanen da Lur Berri gelan. 17:00etan hasiko da. Inork oroitzen ez duen leku batean, hondarrez, zaborrez eta behin etxe izan ziren hondakinez inguratutako leku urrun batean bakarrik bizi den Numa zortzi urteko neskatila da antzerkiko prota-

gonista. Faltan botatzen ditu lagunak, familia eta herria.

Bertzalde, egun eta toki berean, baina 19:00etan, Rubik konpainiaren *Babesleku arrotzak eta animalia bakartien hotsak* antzerkia ikusteko aukera izanen da. Kasu honetan, maleta ardatz hartuta, maleta batek 1.001 pasadizo kontaditzakeela eta, hainbat istorioen bueltan ibiliko dira antzerkian.

Bi antzezlanen kasuan, sartzetaz erreserbatzeko 05 59 55 58 43 telefonora deitu beharko da.

Beti Gazte elkartearen biltzar nagusia larunbatean

Beti Gazte elkarteak larunbat honetan, apirilak 6, biltzar nagusia eta bazkaria egingen ditu Lur Berri gelan, 12:30ean. Joan nahi dutenek apirilaren 2a aitzin eman beharko dute izena: Jeannoti (05 59 54 2134), Coletteri (05 59 54 22 23) edo Maiteri (05 59 54 26 48) erranez.

Erlauntza abesbatzaren kontzertua

Erlauntza abesbatzak kantaldia eskainiko du heldu den ortzegunean, apirilak 11, elizan, 21:00etan. Sartzea borts euro ordaindu beharko da eta 15 urtez beheitikoekurririk izanen dute. Erreserbatzeko: 05 59 54 20 14ra deitu edo otsi.sare@wanadoo.fr idatzi.

Longeville sur Mer eta Oberhergheimgo herritarrei harrera egiteko prestaketak

TTIPI-TTAPA

Bisita berezia jasoko dute saratarrek maiatzaren 30etik ereoaren 2ra bitarte, Longeville sur Mer eta Oberhergheim herrietakoak Saran izanen baitira. Gisa honetara, lehenetik saratarrek egindako bisita itzuliko diete. Izan ere, 2017an saratar andana izan ziren Longeville sur Merren eta 2018an gauza bera egin zuten Oberhergheimera joanez.

Aurten, berriz, hiru herrietakoak Saran bilduko dira eta bisita horren karietarat prestaketa lanetan hasiak dira

herritarrek. Joan den martxoaren 13an, bilkura egin zuten Herriko Etxean bi herrietakoei egin beharreko harreraz solas egiteko eta hainbat animazio antolatze proposamenak egin zituzten. Hala nola, dantza emanaldia, pilota partidak, kanta saioa... Baina horrekin batera, Sarako hainbat txoko ezagutzeko aukera ere eskaini nahi diete bisitariei: Larun, lezeak... Aipatzekoa da jende andana bildu zela bilkuran eta ainitz izan zirela ahal bezain ongi errezibitzeko lanerako prest agertu zirenak.



GANEX

Ate irekien eguna ikastolan

Ate irekien eguna egin zuten martxoaren 16an Olhain ikastolan eta buraso andana hurbildu ziren ikastetxea ikustera eta irakasleekin solas egitera. Bertzalde, aipatzekoa da, ortziralean, apirilak 5, ikastolakoek ikusgarria egingen dutela 18:30ean kiroldegian. Ondotik aperitifia izanen da.

Lezeen Egunean kontzertua, hitzaldia eta bisita izan dute

Berako abesbatzaren kontzertua, dokumentala, bisita-gidatua... izan zituzten martxoaren 24ko hamargarren edizioan

MARIFA ETA KORO

Martxoaren 24a, igandea, egun borobila izan zen herrian. Alde batetik, Lezeen Eguna zen eta eguerdian ikuskizun politaz gozatzeko aukera izan zuten. Izan ere, Berako abesbatzak eta Isidro Fagoaga musika-eskolako txistulariek kontzertu ibiltari eder bat egin zuten lezeke zenbait txokotan.

Arratsaldean bisita gidatua

Arratsaldean, berriz, bisita gidatu bat izan zuten, sorgin-edabe eta guzti. Gainera, Iruñean antolatu den *Sorgin-*

-ehizaren historiari buruzko I. topaketako ekitaldi bat herrian izan zen. Silvia Federicci ikerlari ospetsuarekin batera 70 lagun inguru bertaratu ziren eta museoa eta lezeak ezagutu ahal izan zituzten.

'Aralar, mundua leku den lurra' filma ikusi zuten

Egun osoan 'Aralar, mundua leku den lurra' filma ikusi ahal izan zuten, eta bertako ondare natural eta kulturalaren erakuslehoaz gozatzearekin batera, ikusleek hausnartzeko aukera izan zuten.



Lezeen Eguna jende asko bilarazi zuen. UTZITAKOEA, KORO ETA MARIFA ETA JM ONDIKOL

Korrika kulturalak herrian ere geldialdia izan du

Korrika kulturalaren harira, martxoaren 29an, joan den ortziralean, *Emak bakia baita* film-dokumental arrakastatsua eskaintzea aurreikusia zuten, museoko auditorioan. Ondotik, filmaren zuzendariarekin, Oskar Alegriarekin, mintzaldia egitekoa zuten.




Etxearen bilaketa du ardatz.

Iruñetik urrun daudenendako zerbitzuak eskatuz

Baluartan *Zahartze aktibo eta osasuntsuari buruzko estrategiak* izeneko jardunaldia egin zen martxoan. Harremanak jubiloteka elkarteko lau ordezkari han egon ziren eta Iruñetik urrun dauden herriendako zerbitzuak (medikua, erraterako) eskatu zituzten.

Udako ordutegia apiriletik aitzinera lezean

Herriko Sorginen Lezean apirilaren 1etik, astelehenaz gozotik, udako ordutegia martxan jarri dute. Ekainera arte astelehenetik ortziralerara 11:00etatik 18:30era eta karunbat eta igandetan 11:00etatik 19:00etara egonen da zabalik.



JUANJO MIHURA

IGELTSERITZA-ALBAÑILERÍA-MAÇONNERIE

ERAIKUNTZA OROKORREAN

Urbide Etzea
31710 Zugarramurdi
Nafarroa

T. 0034 607 750 425
T. 0033 674 725 680
j.mihura@hotmail.com



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Lapurdi 1609 X. urtemuga ospatzen ari da

Martxoaren 23an oroimena eta bertso-krakada izan zituzten eta biharamunean Ez Dok Hiru taldearen emanaldia

PIERRE BASTRES

2009an sortu zen Lapurdi 1609 elkarteak, 1609ko gertakariez geroztik 400 urte iragan zirelarik, eta karia hortarat, anitzetan sorgina «eskuin eta ezker» entzuten zelako, herri-tarzonbaitek deliberatu zuten ezetz erraiteko ordua etorria zela: erre zituzten neska eta emaztekiak ez ziren niholaz ere sorginak, beraien heriotza itsuskeria baizik ez zen izan, eta gertatu zena jakinarazi behar zen egiazki.

Oroimen duinak eta zabalak antolatu zituzten, bertzeak bertze, mintzaldiak, liburuak, Aloze-Siboze *Belagileen Trajeria* pastoralara etorritak zuten Senpererat, eta nolaz ez Eduzki Lore antzerkia sortu zuten. Horrez gainerat, Nestor Bazterretxea zizelkari handia ikusterat joan ziren, zerbait egin zezakeen galdegiterat. Gogotik onartu zuen, zizelkaritza asmatu zuen eta maketa sortu, azkenean Jean-Mixel Bedaxagarreri burdina lantzeko lana eman zion. *Oroitmina* izenaz bataiatu zuen Bazterretxeak bere obra, eta jauregiaren aitzinean ezarria zuten, urki batzuk landatuz ondoan.

Martxoaren 23an eta 24an ospakizun ekitaldiak

10 urte ondotik, ospakizunak hantxe hasi zituzten martxoaren 23an, omenaldi batekin. Ikastolako haurrek lore-sorta bat eskainita, Mixel Mendiburuk elkarteko lehenbiziko lehendakariak, elkarlearen sortzea eta goiti-beheitiak adierazi zituen. Andoni Iturriotz bere aldetik mintzatu zen *Oroitminaz* eta Bazterre-

txeaz, ezin-erraneko sufrikarioak jasan dituzten emazte horietaz oroitzeko galdegin zuen Auxtin Zamorak. Agurra dantza, *Misere* kantua, Martxel Brave eta JM Bedaxagarren kantuak eta gero, denak Larralderat joan ziren, bertso-krakada musikaturat. Bertsolariak ziren Mandi eta Xumai Murua, Miren Artetxe eta Igor Elorza, Xan Alkat gai-emailea. Hiru musikariekin aritu ziren eta bai bertsozaleak baita ez hain-zaleak ere loriatuak egon ziren.

Biharamunean, martxoaren 24an, Larreko gelan hitzordu handia izan zuten: Ez Dok Hiruren *Euskal Musikaren Benetako Historia*. Antzezlan honen azken emanaldia zen, eta hor zirenak luzaz oroituko dira ikusi eta aditu zutenaz. Gainerat, azken aldian zen Patxo Telleria eta Mikel Martinezek aurkezten zutela, emozio gehiago emanez.

Asteburu borobila eta betea izan zen martxokoa, baina ez hondarrekoa. Oraindik ere izanen da zertaz gozatu.

Azken ekitaldia

10. urtemugako azken ekitaldia mintzaldi bat izanen da "Senpereko (eta Lapurdiko) Euskara XVIII. mendean" herri-tarrei aurkeztuko die Xabier Elosegik ereiarioan, herriko bestetan.

**EREIAROAN XABIER
ELOSEGIK
MINTZALDI BAT
ESKAINIKO DU**



Martxoko ospakizunetan jende andana bildu zen. AUXTIN ETA P. BASTRES





BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com



Joan den urteko argazki lehiaketan goian ageri den argazki horrek epaimahaiaren saria irabazi zuen.

Inauterietako argazki lehiaketa bozketa-fasean da

Erabiltzaileek gustuko dituzten hiru argazkien aldeko botoa eman dezakete apirilaren 12a baino lehen

TTIPI-TTAPA

Bateko eta bertzeko argazki saila bildu ondotik, ERRAN.EUS atariak antolatutako inauterietako argazki lehiaketako irabazleak aukeratzeko ordua iritsi da.

Epaimahaiak banatuko du sarietako bat, Nekatur Euskadiko Nekazalturismo Elkarteak

eskaintako Nekatur bono orlegia (bi lagunendako bi gau

BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTENAK ERE ZOZKETAN SARTUKO DIRA

eta bi gosari) eta horretaz gain, ERRAN.EUS atariko erabiltzaileek aukeratutako argazkiak ere izanen du saria, Elgorriagako bainuetxean bi lagunendako zirkuitua eta otordua. Hortaz, zuena da orain hitza: apirilaren 12ra arte eman dezakezue bozka ERRAN.EUSEKO argazki lehiaketaren atalean sartu eta eskatzen diren datuak beteta.

Hirugarren sari bat ere izanen da, lehiaketan nahiz bozketan parte hartzen dutenen artean, bi lagunendako otordua zozketatuko baita Elbeteko posadan.

Apirilaren 15ean jakinaraziko dira irabazleak, eta maiatzan egingen da sari banaketa, irabazleekin aurrez zehaztutako egun eta orduan.

Helduek DBHko titulua eskuratzeko aukera Lekarozen

Arrazoi bat edo bertze tarteko, bere garaian bigarren hezkuntzako ikasketak akitu gabe utzi zituenak horretarako aukera izanen du heldu den ikasturtean Lekarozko institutuan.

2015/2016 ikasturtean eskaini zuten lehenbiziko aldiz eskualdean zerbitzu hau eta geroztik urtero talde batek bere ikasketak akitu ditu Lekarozko institutuan. Aurten ere, guttueneko taldea lortuz gero, helduen hezkuntza zerbitzua eskainiko dute Lekarozko institutuan.

Interesa dutenek Lekarozko institutura deitu beharko dute (948 58 18 03) apirilaren 8tik 12ra bitartean. Bulegoko ordutegia ondokoa da: asteleheneetik ortziralerara 08:00etatik 15:00etara eta asteazkenetan 16:00etatik 18:00etara.

Urdazubiko Turismo Bulegoa zabaldu dute

Turistei begira, denboraldi berrirako prest dira Urdazubin eta dagoeneko turismo bulegoa zabaldu dute. Astelehene eta asteartetan itxita egoten da, eta asteazkenetik igandera irekitzen dute: 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

BERA (administraritza) 31780 Bera	DANTXARINEA 31712 Urdax
IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Iruñ
LUZAIDE 31660 Luzaide	

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª-zen ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Joan den urteko finaleko une bat, Oizko plazan. Aurtengoa Iruritako plazan jokatu dute. ALICIA DEL CASTILLO

Abiatu da 40. Baztan-Errekako Laxoa txapelketa

Hamaika talde hasi dira lehian bi multzotan banatuak eta finala abuztuaren 3an jokatu dute Iruritako plazan

TTIPI-TTAPA

Martxoko azken asteburuan abiatu da Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren berrogeigarren edizioa. Hamaika talde ariko dira aurtengoan, 6 Doneztebekoak, bina Iruritakoak eta Arraiozkoak eta Oizko bakarra. Azken urteetan bezala, izenaren ondotik, babesle duten etxearen izena eramanen dute taldeek. Finala abuztuaren 3an jokatu dute Iruritako plazan.

Sei eta bortz taldeko bi multzotan banatuta ariko dira taldeak. A multzoan gaur egungo txapelkun diren **Doneztebe-The Moment** (Pascual Bertiz, Koldo Legarra –joan den urtean lesionatu egin zen eta txapelketa gehienez eta finalean Julen San Miguel ari zuen bere ordeztu–, Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa), **Doneztebe-Mikelo** (Josu Juanena,

Xabier Ibarrola, Unai Sapuppo eta Julen Etxebeste), **Irurita-Miguelene** (Xabi Barberena, Gorka Urtasun, Jagoba Ramos eta Egoitz Prim), **Arraioz-Zubiondo** (Aitor Zubigarai, Josu Etxandi, Mikel Organbide eta Aritz Alunda), **Doneztebe-Apezteguia** (Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Joseba Juanena eta Ibai Santesteban) eta **Doneztebe-Titi** (Aimar Jabalera, Eloi Garcia, Iñaki Maylin eta Iñigo Belarra) ariko dira.

B multzoan, berriz, **Doneztebe-Avia** (Javier Almandoz, Asier Mutuberria, Jokin Ape-

**DONEZTEBEKO SEI
TALDE, IRURITA ETA
ARRAIOZKO BINA
ETA OIZKOA DIRA**

zetxea eta Juan Telletxea), **Oiz-Kokoetxea** (Ioritz Zelaieita, Aimar Saldias, Jon Oiartzabal eta Iker Bereau), **Irurita-Olari** (Jorge Azkarate, Joseba Urtasun, Guillermo Etxenike eta Iñaki Etxandi), **Arraioz-Sagardia** (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Miguel Maritorenena eta Jon Gamio) eta **Doneztebe-Zarbo.net** (Felipe Ganboa, Koteto Ezkurra, Luis Miguel Apeztexea eta Jesus Mari Zabala beteranoak) ariko dira.

Beraz, berriki arte erremon-telari profesionalak izandako Koteto Ezkurra eta Eloi Garcia doneztebarrak eta oraindik profesionala den Gorka Urtasun iruritarra plazan guantearekin ikusteko aukera eskainiko du Laxoa txapelketaren berrogeigarren edizioak. Julen San Miguel ez dago talde *titularretan* Gipuzkoan bizi delako, baina edozein talde-rekin ordezkotza gisara aritzeko borondatea erakutsi du.

Multzo bakoitzeko lau lehen-bizikoek final laurdenak jokatu dituzte ekainaren 22an eta 29an uztailaren 6an; irabazleek finalaurrekoak jokatu dituzte uztailaren 13, 20 eta 27an eta finala Iruritako plazan jokatu da abuztuaren 3an.

Berako XV. Mendi Maratoi Erdia apirilaren 14an eginen dute

TTIPI-TTAPA BERA

Oier Ariznabarreta bertze garaipen bat lortzen saiatuko da apirilaren 14an egingen den Berako Mendi Maratoi Erdian. Manttalek antolatutako lasterketaren hamabosgarren edizio honetako faboritoena da bizkaitarra, eta seigarren garaipena segidan lortu nahiko du. Walter Becerra eta Beñat Katarain ere bertan izanen dira, bertze hainbat korrikalarirekin batera. Izan ere, lasterketarako izena emateko epea ireki eta zortzi ordutan agortu ziren 525 dortsalak.

Emakumeen kategorian Oihana Kortazar eta Alizia Olazabal beteranoek Beran izanen direla baieztatu dute. Laura Sola, 2014, 2015 eta 2016ko irabazleak azken astean konfirmatu du Beran izanen den ala ez. Oihana Azkorbebeitia, 2012 eta 2018ko irabazlea, aldiz, ez da etorriko. Lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen XI. Txapelketarako puntuagarria izanen da. Txapelketarako federatuta dauden korrikalari guztiek puntuatuko dute.

Manttalek, duela urte batzuk egiten zen 14 eta 17 urte arteko gazteentzako lasterketa berreskuratu zuen iaz eta aurtien ere egingen dute Gazte Trail-en laugarren edizioa. Proba, 6 kilometro luze duena eta 460 metroko desnibelarekin, maratoi erdiko irteeraren ondotik hasiko da, eta bukatu irabazleek helmugan izanen da. Korrikalariak Berara bueltatu ahal izanen dira antolakuntzak jarritako furgonetan.

Bezperan, ttikien lasterketak egingen dituzte eta hamabosgarren edizioaren harira, bertze zenbait ekitaldi ere antolatu dituzte Beran (ikus 13. orria).



Ezker-eskuin, Asier Navaridas, Javier Etxezarreta, Beñat Lizaso eta Joseba Lasa finalistak, erdian epailea dutela. UTZITAKOA

Lasa eta Navaridas pilota egokituko finalean ariko dira

II. Master Cup txapelketako finalean arerio izanen dira igande honetan Beasainen eta Euskal Telebistak eskainiko du partida

TTIPI-TTAPA

Pilota tresna inklusibo egoki bat dela erakutsi zuen martxoaren 23an Azkoitiko Gurea pilotalekuan. Goizean adimen urritasuna duten kirolariak

aritu ziren eta arratsalde ez gaitasun fiskoa duten kirolarien txanda izan zen. Parte hartzaileen artean Juanjo Rodriguez, Espainiako aulkiko tenis txapelduna aritu zen, Frantziako

ordezkariak ere izan ziren eta Gorka Alvarezek, Gipuzkoako kirol egokituko Bidaideak eskolako irakasleak kutsu inklusiboa eman zion, inolako lesiorik izan gabe parte hartu zuelako. Javier Etxezarreta eta Beñat Lizaso, iaz bezala, finalean arituko dira, nahiz eta aurtien arerioak izanen diren. Sunbilla bizi den Asier Navaridas izanen da Etxezarretaren laguna eta Joseba Lasa lesakarra izanen du ondoan Lizasok. Iaz Lasa eta Navaridas bikote izan ziren, baina ez zuten finalerako txartelik lortu.

Josetxo Ezkurra zenaren omenez XXIX. txapelketa abiatu da

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Erreka elkarteak hogeita bederatzigarren aldiz antolatutako Josetxo Ezkurra Memoriala eskuz banakako pilota txapelketako lehen jardunaldia jokatu dute martxoaren 24an. Benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailako pilotariak hasiak dira txapelketan eta igande goizetan jokatuko dituzte partidak, Eratsunen, Legasan, Donezteben, Iruritan, Lesakan eta Sunbilla. Finalak maiztzean edo ekainean jokatuko dituzte Donezteben.



Josetxo Ezkurra gogoan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Marokotik bueltan da Josenea PandAvia

Josenea PandAvia Team taldea bueltatu da Maroko Panda Raid lasterketatik. Sei auto gidarik eta kopilotok osatu dute taldea: Iban eta Jon Arburua anaiek (Bera), Juantxo Pikabea eta Iruñeko Iñaki Irigoien (Lesaka-Iruña) eta Josetxo Irazoki eta Txomin Iribarrenek (Igantzi-Urdazubi).



JUAN MARI ONDIKOL

Antxitoneako paleta goma txapelketa

Martxoaren 23an jokatu ziren Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta goma txapelketako finalak. Lehen mailan, Josetxo Huartek eta Unai Apeztegiak 40-20 irabazi zieten Aitor Jaen eta Joseba Oskarizi. Bigarren mailan, Albiasuk eta Oterok 40-31 irabazi zieten Iantziri eta Gamiori.

HITZALDIAK

LEKAROZ

'Erraza, osasuntsua eta zapoetsua'

Zubigainean, apirilaren 8an eta 11n, 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era, hurrenez hurren.

'Mitoak eta harresiak suntsituz'

Zubigainean, apirilaren 15ean eta 17an, 10:00etatik 12:00etara eta 17:30etik 19:30era, hurrenez hurren.

LESAKA

Ikusmen urritasuna hizpide

Erabilera Anitzeko Aretoan, apirilaren 6an, 09:00etan hasita.

SARA

Beti Gazte elkartearen biltzarra

Lur Berri Gelan, apirilaren 6an, 12:30ean.

DONEZTEBE

Zergatik sufritzen dugu pertsonak?

Herrigunean, apirilaren 8an, 19:00etan.

LEITZA

Elikagai transgenikoak

Torrean, apirilaren 11n, 19:00etan.

ELIZONDO

Elikagai transgenikoei buruzko solasaldia

Arizkunenean, apirilaren 12an, 19:30ean.

TAILERRAK

ELIZONDO

Euskalkide saioa

Fco. Joaquín Iriarte Adinekoen egoitzan, apirilaren 12an, 17:00etatik 18:00etara.



OSKAR TXOPERENA

IGANTZI Udaberriko bestak

Zinema-emanaldiak, musika eta kantak, jokoak, tailerrak... Apirilaren 5etik 8ra.

IGANTZI

Erorketak saihesteko

Osasun Etxean, apirilaren 23an, goizean.

LEITZA

Familien txokoa

Udaletxean, apirilaren 9an hasita, 11:00etatik 12:30era.

IKUSKIZUNAK

SARA

Ikastolako haurrek eskainitako ikusgarria

Apirilaren 5ean, 18:30ean.

LESAKA

Tantirudantza jaialdia

Apirilaren 7an.

SARA

Antzerkiak

Lur Berri Gelan, apirilaren 13an, 17:00etan.

GOIZUETA

'Errementari' filma

Ganbaran, apirilaren 14an,

18:30ean.

ELIZONDO

Bailableak

Plazan, apirilaren 14an, 12:30ean.

DONEZTEBE

'Las Cuñadas' antzerkia

Zineman, apirilaren 13an, 19:00etan.

'Cavernicolas' eta 'Dantza'

Zineman, apirilaren 14an, 16:30ean eta 18:30ean.

'Super Lopez' filma

Zineman, apirilaren 21ean, 18:30ean.

LEHIAKETAK

LESAKA

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa

Apirilaren 12a arte.

BERA

Baztan-Bidasoko Bertsopaper Lehiaketa

Maiatzaren 17a arte.

ARANTZA

Eskolarteko Bertsolari txapelketa

Apirilaren 5ean, 18:30ean.

IRTEERAK

BORTZIRIAK

Garesera

Solaslaguna egitasmoa. Apirilaren 4an.

KIROLA

ELIZONDO

Biriatura

Apirilaren 7an, plazatik abiatuta, 06:00etan.

Ugastara

Apirilaren 14an, plazatik abiatuta, 07:30ean.

LEITZA

XLI. Herri Krosa

Apirilaren 7an, plazatik abiatuta, 06:00etan.

ESKUALDEA

Korrika

Apirilaren 8an.

KONTZERTUA

BEINTZA-LABAIEN

Malerreka Kantuz

Apirilaren 6an, plazatik abiatuta, 12:00etan.

LESAKA

Musika Banda eta Azken Trena

Harriondoan, apirilaren 6an, 22:00etan. Kontzertua Mikel Laboaren omenez.



LEITZA Herri Krosa

Hiru kategorია: benjaminak, gaztetxoak eta maila absolutua.
Apirilaren 13an, plazatik abiatuta.

SARA

Erlauntza abesbatza

Elizan, apirilaren 11n,
21:00etan.

ELIZONDO

Musika eskolako ikasleen kontzertuak

Arizkunenean, apirilaren 15ean,
16an (17:00etatik 18:00etara)
eta 17an (16:30ean hasita).

AZOKAK

ELIZONDO

Artisau-azoka eta tailerrak

Plazan, apirilaren 18an.

ERRATZU

Artisau-azoka eta haurrendako tailerrak

Kanpinean, apirilaren 20an,
goizez.

URDAZUBI

Artisau-azoka eta haurrendako tailerrak

Plazan, apirilaren 21ean, goizez.

OSPAKIZUNAK

IGANTZI

Udaberriko bestak

Apirilaren 5etik 8ra.

SARA

Ikastolako besta

Kiroldegian, apirilaren 5ean,
18:00etan.

LARRAINTZAR

BRT gaupasa

Apirilaren 6an.

ETXALAR

Kantu-bertso bazkaria

Lizarietan, apirilaren 13an,
14:00etan.

ARANTZA

IV. Trikitixa Jaialdia

Apirilaren 6an.

Nafarroako Akordeoilarien Topaketa

Apirilaren 13an.

Nire aukera

«Musikak nire bizitzari zentzua ematen dio, nire izatearen zati da»

OLAIA INTZIARTE ORONÓZ-MUGAIRIKO MUSIKARI GAZTEA

«Ezinegon aunitz dituen pertsona aldakorra eta ezegonkorra» da Olaia Intziarte. Astegunez «albaitaritzazentro batean» dabil praktiketara eta tartean «musika-entseguak» izaten ditu. Denbora librean «lagunekin kaferen bat edo garagardo batzuk hartzeko edo zakurrarekin paseotxo bat emateko» baliatzen du. Denboraren joanean bere zaletasunak errotu ditu: «haurtzaroko haur hura ohartu naiz, musika eta animaliak maite ditut». Gazterik murgildu zen musika-munduan: «hasierako latsa haiek lantzen 16 urte ingururekin hasi nintzen, trikitixa astinduz, eta hortik guttira Lamia taldearekin hasi ginen». Musikarekiko



lotura «etxetik» datorkio: «akordeoia, txistua, biraderadun organoa... eta diska aunitz izan ditugu etxean. Musika aunitz irentsi dut». Irentsi eta erauntsi. Izan ere, entzule izateari utzi gabe, sortzaile ere bada. «Lau akorde ikasi orduko» hasi zen konposatzen. «Modu jostarian» eman zituen hasierako pausoak eta ederki oroitzen ditu:

«lehendabiziko kanta ahizparentzat idatzi nuen». Orokorrean «minak» bideratzen du bere sormena: «barne-borroketako bat da, kontent nagoenean konposatzen ikasi nahi nuke baina gorputzak ez dit eskatzen. Dena dela, musika ulertu ahala ideiak aiseago gogoratzen zaizkit eta hortik abiatzen ere hasia naiz». Musikan harrapatu du «bizitzaren zentzua». Barne-grinak asetzeko parada dira musikari gaztearentzat Mihise-Lamiatik sortutako proiektua eta Natali taldeak. Baina taldeez haraindi, bakarrik ere ikusi izan dugu eta martxoaren 8an eskualdeko manifestazioa borobiltzeko bere ahotsaren oihartzunaz gozatu genuen: «urduritasuna kudeatzeko izan nuen zailtasunak alde batera utziz, bihotza betetzen duten momentu horietako bat bizi izan nuen. Pertsona jakin batek zure kanta baten letrak ezagutzea izugarria da, ahalduntze sentsazioa ematen du». Indar eta esperantza horiek lagun eta «lker Laurobak animatuta» aurten Gaztea maketa-lehiaketan parte hartzeko urratsa eman du. Areago, bigarren fasera pasatu da eta hori ez zuen «inondik inora» espero: «jendearen babesarekin hagitz kontent nago».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda bat bere lur eremuarekin salgai. ☎ 661 12 15 40.

ERRENTAN EMATEKO

IRURITA. Pisua errentan emateko. Egoera onean eta dena kanpoaldera begira. Lehenbiziko pisuan. ☎ 645 71 73 25 / 609 95 52 41.



ALMUÑECAR. Granadako kostea tropikalean, partikular batek lagun bat edo birentzako apartamentua errentan emateko du, maiatzean, bi asterako edo hilabete osorako. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terraza, aire girotua eta hagitz ongi hornitua. ☎ 658 94 37 02.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. Kanttonberri karrikan, trastelekua salgai. Sarrera kaletik. Altuera bikoitza dauka. Moto tiki bat eta bizikletak sartzen dira. ☎ 618 46 92 88 / 639 62 18 47.

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Eltzeak plaza, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎ 636 84 75 10.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ITUREN. Lur eremua salgai. ☎ 948 63 78 62 / 678 85 50 56.

LANA

ESKARIAK

BORTZIRIAK. 50 urteko emakume euskaldun batek haurrak edo adinekoak zainduko lituzke. ☎ 650 40 79 78.

Emakume arduratsua lan bila. Interna edo externa, orduka, adinekoak edo haurrak zaindu eta garbiketa lanak eginen lituzke. Erreferentzia oso onak. ☎ 602 18 24 68.

ESKAINTZAK

BERA. Churrut Hotelean lan egiteko zerbitzaria eta harreragilea behar dituzte. Bidali curriculum: info@hotelchurrut.com.

BAZTAN. Pintura lanetan aritzeko langilea behar da. Esperientzia izatea

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

baloratuko da. ☎ (0033) 603 34 70 76 (momentuan hartzen ez badu, utzi mezua).

IBARDIN. Asteburuetan jatekian lan egiteko zerbitzaria behar dute. ☎ 629 91 23 93.

IBARDIN. Mendiko jatekian sukaldari laguntzailea behar dute, asteburuetan eta jaiegutetan. Curriculumak: info@mendikoibardin.com.

IBARDIN. Frantsesa dakien langilea behar dute asteburuetan eguerdiko zerbitzua egiteko. bentagorria@hotmail.com edo deitu. ☎ 638 44 17 20.

LESKA. Koxkonta jatekian zerbitzari euskalduna behar dute. ☎ 608 75 72 28.

BAZTAN. Asteburuetan eta udan ostalaritzan lan egiteko jendea behar dute. ☎ 663 62 19 82 (telefonoz edo Whatsappez).

BERA. Frantses pixka bat dakien neska eta mutila behar dituzte sei hilabetez Larungo benta batean zerbitzari aritzeko. ☎ 607 56 60 22.


ZUGARRAMURDI. Altxatenea jatekian sukaldari laguntzailea behar dute maiatzetik abendura eguerdian lan egiteko. ☎ 948 59 91 87.

BERA. Errekalde ostatuan sukaldaria behar dute egun osoz. Curriculumak: errekaldeostatu@hotmail.com.

ANIMALIAK

SALGAI

Labrador arrazako txakurkumeak salgai. Urtarrilaren 21ean sortuak, apiril hasierarako prest etxetara joateko. Osasun karneta eguneratua, bakunatuak, mikrotxipa eta kontrol guztiak pasata. Ama pedigriarekin, aita ez baina jatorrizko arrazakoa.



Giro familiarra eta konfiantzazkoa, edozein xehetasunentzat deitu lasai. Bisitak konpromisorik gabe. Txepetxa albaitari zentroan (Bera) eginen dira hitzorduak nahi izanez gero. Prezioa: 300 euro. ☎ 0033 786 51 92 53. iraiaarin@hotmail.fr

MOTORRAK

SALGAI



Kia Sorento autoa salgai. 5 ate, 140 CV. Diesel. 4x4 Reduktorarekin. 2005ekoa. 161.000 KM. Irratia CD BLUETOOTH. IAT-ITV pasatuta arazorik gabe. Hagitz egoera onean. 3.900 euro. ☎ 666 51 22 02.


DENETARIK

SALEROSKETAK



Garajeko ate automatikoa salgai, sekzionala, Roper marka. Estreina-tu gabea, jatorrizko enbalajea. Urrutiko kontrola eta ekipazio guztia. 2,86 luze eta 2,72 zabal. Gris argia. 1.000 euro. ☎ 608 17 45 10.

Belarra fardo tikietan salgai, ongi idortua. ☎ 618 96 27 74.



Armairua salgai. Neurriak: 241,6 (altuera) x 201,7 (zabalera). Egoera onean. ☎ 676 26 76 88.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,20
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,80
- 8-10 kilokoak: 5,00/5,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 57 €

Zerri gizona 1,184 €

Zerramak 0,500€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (martxoaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)

SANTESTEBAN TAILERRAK

Estreinatua gabea

RENAULT MEGANE ZEN TCE 140 CV
Nabig. Aparkatzeko kam.

Estreinatua gabea

DACIA DUSTER COMFORT TCE 115 CV
14.700 euro

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

IRAGARKIAK INTERNETEN

Merkatu Titikiko iragarkiak webgunean ere argitaratzen dira hilabete batez: <https://erran.eus/merkatu-ttikia>

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

TOYOTA LAND CRUISER
190CV • 207.000 km • 3 ate

SUZUKI GRAND VITARA
130 CV • 85.000 km • 5 ate

www.mendaurmotor.es

Logotipoak Txartelak Oroigarriak Argitalpenak Egutegiak Boletok

948 635 458
kulturkari.com

Maria Markategi sariak 2019

Argazki Lehiaketan BOTOA EMATEKO ORDUA

erran.eus
Mendialdeko Albisteak



**Zure gustuko 3 argazkiak
aukeratzeko sartu erran.eus atarian**

eta ELBETEKO POSADAN 2 lagunendako otordu baten zozketan sartuko zara

Bozketa fasea: APIRILAREN 12A ARTE.

Irabazleak: Erran.eus atarian jakinaraziko dira APIRILAREN 15EAN.

Sari-banaketa: MAIATZEAN.



HERIOTZAK

- **Marie Etcheverry,**
Sarakoa, martxoaren 8an, 89 urte zituela.
- **Francoise Garmendia,**
Sarakoa, martxoaren 10ean, 81 urte zituela.
- **Genoveva Aldazabal Gorria,**
Berakoa, martxoaren 13an, 90 urte zituela.
- **Flora Bermudez Bravo,**
Berakoa, martxoaren 14an, 97 urte zituela.
- **Gregorio Pagazaurtundua Murga,**
Gartzaingoa, martxoaren 18an, 84 urte zituela.
- **Manuel Arregi Goñi,**
Ornoz-Mugairikoa, martxoaren 22an, 103 urte zituela.
- **Miguel Aleman Saharrea,**
Iruritakoa, martxoaren 23an, 79 urte zituela.
- **Martina Emerita Malda Irigoien,**
Urdazubikoa, martxoaren 25ean, 93 urte zituela.

SORTZEAK

- **Aiala Telletxea Oliveira,** Lesakakoa, martxoaren 9an.
- **Maren Danboriena Ulacia,** Etxalarkoa, martxoaren 12an.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN:
AQUÍ, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDON** Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, esker onak** eta **urteurrenak:** Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €€ Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak.

URTEURRENA



Zure oroimenak indartzen gaitu.
Egun handira arte,
Enrike.

I. urteurrena

OROIGARRIA

Bautista GOÑI LUZIAGA

Lekarozen, 2019ko otsailaren 20an

Beti gogoan izanen datzugu
Zure umore onarekin
eta trastekeriekin




ETXEKOAK

URTEURRENA

Amaia IRISARRI GOIENETXE

Elgorriagan, 2017ko apirilaren 12an

II. urteurrena

Amaia maitia, egunak joan egunak etorri
zure hutsunea dugu igarri,
beti jendez inguratutik
izan baitzara eta izanen zara maitagarri.



ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

KONTATU KONTUAK



Osasunako jokalaria Elgorriagan. Ligako azken txanpari ekin aitzinetik, elkarbizitza jardunaldia egin zuten Osasuna futbol taldeko jokalariek martxoaren 25ean. Elgorriagako bainuetxera hurbildu ziren eta bertan hartu zuten bainua. Pilak kargatu eta lehen mailarako bidean baliagarria izanen zaiela espero dute.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, kontaiguzu!

Bidali info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira. Edo etor zaitez TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

**ESKELAK eta
HILBERRIAK**
eguneratuak
erran.eus
webgunean



URTEBETETZEAK



Manex Goñi Errandonea eta Aiert Baleztena Goñik 2 eta 4 urte beteko dituzte martxoaren 30ean eta apirilaren 4an. Zorionak biei familia guztiairentzat.




Izarne Agesta Petrirenak martxoaren 29an 3 urte bete ditu. Zorionak gure etxeko printzesari Berako eta Sunbillako atabxi, atta, ama eta bereziki bere anaia Enaitzen partetik. Muxu pottolo bat.




Narbarteko **Iraia Martin Argainek** martxoaren 24an 7 urte bete ditu eta amatxi **Kontxi Bergarak** apirilaren 8an 69 urte egingen ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiairentzat, baina bereziki Juneren partetik.



Egoi eta Eñaut Bidart Zabaletak 10 eta 7 urte bete dituzte. Segi holaxe artistak!!! Asko maite zaituztegu!



Maidar Petrirena Gorosterrazu sunbildarrak apirilaren 10ean urteak beteko ditu. Aunitz urtez ixeba!!! Zorionak amatto!!! Ongi ospatu zure urtebetetze eguna eta afari goxo-goxoa prestatu. Paaaaa.....



Sunbillako **Iraitz eta Iraia Sarratea Arretxeak** apirilaren 13an eta martxoaren 31n 5 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak etxekoentzat. Muxu erraldoi bana.



Aurtizko **Xabat Mindegia Goñik** apirilaren 10ean 3 urte beteko ditu. Hiru muxu amatxi-atautxi, izeba-osaba eta bereziki hiru lehengusuen partetik.



Iturengo **Irati Iñigo Lujanbiok** 4 urte beteko ditu apirilaren 12an. Zorionak politta!



Erratzuko **Iker Iturburuak** 16 urte bete ditu martxoaren 11n eta **Enaitz Bikondok** martxoaren 18an 10 urte. Zorionak Narroa, Haritz, Odei, Iraide eta Beñaten partetik!




PLAZAN BAZAN



DOMINOAN


Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



ESTROPEZUA

Ui ene.
Gizajo honek estropezu egin du
triku batekin.
Zein ote da bere itzal zuzena?

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)






Ze arraio egiten ote dute bi izar horiek nire bularretan...



Osa ezazu sudokua, SIRENA hitzak dituen hizkiak erabiliz (S, I, R, E, N eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Jar ezazu ikonotxo bakoitzaren azpian hari dagokion hizkia eta SIRENA errateko beste bi modu osatuko dituzu.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kontaktak bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

730 aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 sarrera
Iñaki Sanchez Lafuente | ZUBIETA
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Miguel Etxeberria Indakoetxea | ELGORRIAGA
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Juana Mari Bikondoa Etxeberri | ELIZONDO
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Jesus Mari Buldain Mariezkurrena | LEITZA
Buatxabal - Kamiseta bat
Samain Alvarez Goñi | BEINTZA-LABAIEN
Martiko - Lote bat
Maite Astiz Garai | OROÑOZ-MUGAIRI
Baga-Biga - Disko bat
Rakel Arlegi Goienetxe | LESAKA
Baga-Biga - Disko bat
Blanca Danboriena Urtsuegi | URDAZUBI

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

2 sarrera



ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com




Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**LI
BU
RU
AK**



Nur eta kobazulo liluragarria
Ahazten diren gauzak

erein
argitaletxea
www.erein.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ibaizabal.com



www.arkupegozotegia.com